



Biktoriano Iraola

# Au poza senti det eta beste bertso asko



23481  
CAS-128/99



# Au poza senti det

eta beste bertso asko

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

**Ugaldetxo auzoa**

**Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53**

**Fax (943) 49 35 48**

**20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)**

**Biktoriano Iraola**

---

**Au poza senti det  
eta beste bertso asko**

---

Auspoa Liburutegia  
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-47-X

Legezko Gordailu: S.S. 7/97

# Biktoriano Iraola

## Aristigieta (1841-1919)

---

**P**ASAI San Juanen jaio zan 1841 urtean, baiña bere denbora guzia Donostian egin zuan.

Azpeitiar batekin ezkondu zan: Katalina Alvarezekin. Bi alabak izan zituzten: Dolores eta Maria.

Legazpi balean bizi izan zan, bostgarren zenbakian. Moldiztegia zuan, eta lantokia etxe berean zeukan. Bertso-paperen batzuk eskuratuak ditugu aren moldiztegian argitara emanak. *Baserritarra* izeneko aldizkari errikoia ere aren etxean inprimitzen zuten. Baita *El thun thun* izenekoia ere.

Makinak mugitzeko, asto bat ibili arazten zuten bueltaka etxeke patioan.

Gerratean, karlistak Arratzaindik Donostiari tiratzen ziotenean, granada bat Iraolaren etxean sartu omen zan bein; bestea, berriz, kalean erori. Baiña leertu ez eta Iraolak biak jaso, bakoitzari eroritako eguna idatzi eta etxean gorde zituan oroigarritzat.

Bein baiño geiagotan Donostiako kontzejala izan zan. Bera omen da *tamarindo* arbolak ekartzen alegindu ziranetako bat.

1899 urtean Parisa joan zan orduko Exposizioa ikustera, eta globo batean igo omen zan.

Euskal bertsoak erruz jarri zituan. Garai artako aldizkarietan agertzen ziran: *Euskal-Erria*, *Ibaizabal*, *Euskalzalea*, *Baserritarra*, *Euskal Esnalea*, *El thun thun*, *Donostiako euskal festen oroimengariak*...

Mota guzietako bertsoak ditu: olerki kutsukoak, bertso-paperetakoan antzekoak, umorezkoak, epigramak, ipui edo *fabulak*... Sarritan saritu zuten. Liburuskaren batzuk ere argitaratutakoa zan.

Ipuiak ere asmatu zituan itz-lauz. Umorezkoak danak edo geienak. Artara zuan bere joera.

Antzerki batzuen egillea ere bada. Komeri, zarzuela eta bakar-izketak, amabost bat ale: *Bi itxuak*, *Petra txardin-saltzallia*, *Ardita beti ardit*, *Pasaian*, *Gabonetan*, *Txomin Donostiyan*, *Zeladore baten estuasunak*, *Joxemaritarrak*, *Xordo*, *Leokadia*, *Pulpuba*, *Orentzaro gabe*, *Ergobian*, *Ixkiña Mutrikun*.

Marrazkilaria ere bazan. *Euskal-Erria* eta *El thun thun* aldizkarietan garai artako euskalzale batzuen marrazkiak argitara eman zituan: Bilintx, Ramon Artola, Sanchez Irure, Juan Inazio Uranga, Pedro Maria Otaño, Juan Pedro Otaño, Udarregi...

Gizon bikaiña omen zan, altu eta lodia.

1919 urteko agorrillaren 19-an il zan, irurogei ta emezortzi urte zituala.

Aren eriotzaren berri ematerakoan, onela zion *Euskal Esnalea* aldizkariak:

"...Makiña bat ipui, izkirimiri ta gauza alai idatzita joan zaigu Iraola gizarajoa..."

...Olerkiak idazten ere ederki zekien. Emen bertan agertu ziran *Euskalerriko txoriyak* eta beste asko. Idazti batzaldietan ere sari ugari irabazi zitun donostiar jator onek.

...Oso donostiarra zan Iraola. Donostiko euskera zan berea; Donostia zarreko ipui ta gertaerak ederki



zekizkian; arrantzale, txardiñ-saltzalle, zeladore ta orrelakoak ondo ezagutzen zituan.

...Il da... il onen 19-garren egunean, Urte asko zituan, bañan sendo ta tente zebillen oraindik”.

\* \* \*

Aren ipui sorta bat argitaratu zuan *Auspoa* liburutegi onek bere bederatzigarren zenbakian, *Oroitzak eta beste ipui asko* izenarekin.

Oraingo ontan, berriz, aren bertso mordo bat eskeiñi nai dio irakurleri. Ez noski arek jarritako guziak. Alde batetik, danak biltzea eziñezkoa izango litzakelako, ainbeste moldatu zituan eta. Eta bestetik, *Auspoa*-ren liburuak beren neurri jakiña dutelako. Baiña bilduma onek, osoa ez izanik ere, ederki erakusten du aren bertso gintza nolakoa zan.

Biktoriano Iraola, Donostiako joan dan mendearen euskal idazleen gizaldikoa degu. Talde orrek euskeraren aldeko mugimentu edo indar-aldi sutsu bat sortu zuan Gipuzkoako iriburuan bigarren karlisten gerratea bukatu eta fueroak galdu ondoren. Euskaltzale saiatu aietako bat degu Iraola jauna. Bere lagun batzuen izenak: Jose Manterola, Ramon Artola, Martzelino Soroa, Antonio Arzak, Kaietano Sanchez Irure, Alejandro Berroa, Felipe Kasal Otegi, Pepe Artola, Ramon Gelbenzu, Pedro Maria Otaño, Franzisko Lopez Alen, Toribio Alzaga eta abar eta abar.

Donostiako erria talde edo gizaldi orrekin zortetan dagoala pentsaturik, bertako Euskararen Udal Patronatuak laguntza eman du liburu au argitaratu dedin. Milla esker, beraz, aren esku zabalari.

A.Z.



Biktoriano Iraola Aristigieta (1841-1919)  
(*Irutxulo* aldizkaritik artutako argazkia.)

# Au poza senti det!

---

(Bilintxen modura eta bere oroipen jarriyak)

Gaur uste gabe, maite gozoa,  
ikusi zaitutanean,  
egiyetako zorotasun bat  
sortu zait gorputz danian;  
zuk jarri nazu biyotz gaxua  
oraintxen zori onian,  
eta begiyak pozez malkotan  
aurrian zauzkatanean.

Zu ikusita nere biyotza  
orain ain kontentu dago,  
uda-berrian txoriya baña  
oraindik kontentubago;  
nere begiyak zuriak ditu  
bere aurrian naiago,  
gizon zekenak kutxa zillarrez  
betea baña geiago.

Zuri begira lenago ere  
esan izan det neregan,  
aingeru ori gure artera  
zerutik jetxi ote dan;  
zu beste inor orren ederrik  
nola ikusi ez dedan,  
esan nazazu: ez al zerade  
andik etorriya egan?

Zure ortz txiki, txuri, politak,  
gañera orren berdiñik,  
ez det beñere ikusi iñon  
ezer aiñ ondo egiñik.  
Eta nork ditu zuk bezin begi  
zeru-kolore urdiñik?  
Ara zer esan arazten nazun:  
jango zinduzket gordiñik!

Zeñi etzaizka gustatzen zure  
pausoa eta mugira,  
aiziak luma bultzata baña  
ariñaguak badira?  
Zuri zerubak eman zizkizun  
graziyak ainbeste dira,  
ero-azitzen nautenak jartzen  
naizen guztiyan begira.

Ordu denetan galdezka nabill  
norentzat zeran, norentzat!  
Bada beldur naiz ote zeraden,  
dama, besteren batentzat;  
usai gabeko loria ona  
ez baldin bada zuretzat,  
zuk artzen nazu -ala uste det!  
usai gabeko loretzat.

Ori orrela izanda ere  
beti biyotzian zauzkat!  
Zeñetan karga guztiz pixuak  
ezin jasorikan dauzkat;  
berez datozen atsekabeak  
ainbesteraño darauzkat,  
berak oraindik galduko naute  
baldin luzaro badauzkat.

Zure meriyo estu nagola,  
arren, sinistra nazazu,  
arantza zorrotz baten modura  
beti zulaka nakazu;  
kupi zaite ta gogobeterik  
biyotz barrendik esazu:  
“Atoz gozoro eta betiko  
batu gaitean ni ta zu”.

*(Euskal-Erria, 1880)*

# Abenduaren 7<sup>a</sup> 1688-garren urtean

---

***Izugarrizko ekaitza edo tempestadea, eta tximista baten erorketa Donostiako gaztelura, zeñek, lertu ondoren, eragin zituan guztizko kalte eta doakabe aundiyak.***

*(Composición premiada con el pensamiento de plata y oro en los Juegos Florales de San Sebastián.)*

Goizetikan zan itxura txarra  
artzen denbora asiya,  
eguardirako estali zuen  
beltzez zeruben azpiya;  
arratsaldian, illundurikan  
ordubiyetako iya,  
andik aurrera arrats triste bat  
bezela zegon erriya.

Indar aundiyan asirik gero  
itsasoaren mugira,  
bagak murallen altuenetik  
saltatzen zuten errira:  
ura ikusten zuen tristeak  
tximist dizdiren argira,  
ikaratuta gelditutzen zan  
beste aldera begira.

Antigua-ra ta Hernani-ra  
zeuden pasabide biyak  
izandu ziran momentu artan  
itsasoak estaliyak;  
egonagatik lenaz barrerak  
ezkudatzeko jarriyak,  
purrukatuta an ere egin  
zituben kalte aundiyak.

Labak aldera turmoi soñua  
ainbesteraño asi zan,  
zeñen erriyan instante artan  
etsi gabeko gutxi zan;  
tximistak sartzen ziraden plazan,  
kalian eta elizan,  
bertan ziranak Jaungoikoari  
laguntza eske zebiltzan.

Andikan sarri gaztelura zan  
beste tximista bat sartu,  
ala bear da su-autsa(1) zegon  
zertagiyan(2) zan suertatu;  
zazpi eun da geiago ziran  
kintalak bertan zartatu,(3)  
zeñen erriyak golpez bezela  
aguro zuen su artu.

Elizan gorde ziranak ere  
etzuten diña denbora,  
an bertan galdu baña lenago  
ateratzeko kanpora;  
bañan alako trantze estuan  
nora joango ziran? Nora?  
Uskeri bat zan laguntza billa  
abiyatzia iñora.

Erri guziya garretan zeguen,  
ura suaren indarra!  
Leku denetan oju tristeak  
antsiya ta deadarra;  
gero lurrera amildutzen zan  
labe artako sugarra,  
zeñak zabaltzen zuen geiago  
ikara eta negarra.

Momentu artan biyotz danetan  
ala sartu zan tristura,  
estu zebiltzan, beso zabalka  
laguntza eske zerura,  
Jaungoikoari erregutubaz  
bakoitzak bere modura...  
Munduban baldin trantzirik bada,  
Jesus!, trantzia zan ura.

Ura bai zala Donostirako  
juiziyoko azken eguna,  
zeñek geroztik oroitutzia  
senti arazten diguna;  
aitak semia ezin salbatu,  
ezin lagunak laguna,  
galdurik bertan zenbat aberats  
eta pobreren fortuna.

Gero alako itxuran berriz  
ikusirikan erriya,  
biyotza penak urratzen zuen,  
aiñ zegon penagarriya;  
ordu gutxiyan sua ta urak  
purrukaturik guziya,  
zirudiela Jaunak beraren  
eskuetatik utziya.

(*Euskal-Erria*, 1880.)

- (1) *Pólvora*. (*Euskal-Erria*-ren oarra)
- (2) *Almacén*. (Id.)
- (3) *Estallar*. (Id.)



# Guda, gudariak eta beren itz-bideak

---

*(Poesía premiada con la pluma de oro  
en los Juegos Florales de San Sebastián.)*

Soldadu oiek basorik baso  
zer egitera dijoaz,  
beren banderak zabaldu eta  
atabalak orla joaz?

## I

Gure errira zergatik diran  
etsai gaiztoak agertu,  
goazen gu ere, goazen segiran,  
geranak gozoz elkartu,  
antziñetako erramu ostoa  
bat ez dediyen igartu.

Utzi ditzazu, nekazariya,  
utzi laia ta ailtzurra,  
estu ta larri bada erriya,  
balitz zerbaiten beldurra,  
fedez beterik gordeko degu  
geren jatorrizko lurra.

Sortzen diranak porrokatzeko  
lantza zorrotzak badira,  
eta zer geran oroitutzeko  
guazen guztiyok mendira...  
- Zure begiko garrak zergatik  
orla itzaldutzen dira?

- Ditut bi aurtxo, maite izarrak!,  
bi zero dira ederrez,  
aiek nigandik laja bearrak  
nauka estu ta beldurrez,  
zeren geiago ikusitzia  
ez dedan izango errez.

Nere emazte eta umeaz  
beti zoraturikan nago,  
bizi gera-ta alkar maitez  
zeruan bezin naiago...  
Aiek utzi ta nola joango naiz  
ez badet ezer geiago?

- Asko da eta goazen agudo  
utzirik erabat dudak,  
izan ez dedin berandu gero,  
gogor gordetzera mugak,  
geren bandera ezkudatuaz  
irabazitza gudad.

## II

Sutunpen otsa, burni zatiyak  
jirabiraka su ta gar  
dabiltzan ontan, bi gerrariyak  
-itxumenduak, zer azkar!-  
bildutzen dira koraje aundiz  
purrukatutzera alkar.

Errekak ere, a Jaun justuba!,  
odolez daude beteak,  
zeru azpiya keak beztuba,  
ilhez estaliyak beak.  
orla gudadzen dira gizonak  
iñoiz ikusi gabeak!

Artean ketan ikusten dira  
ibar, etxe ta mastiyak,  
doi-doi noizik bein txingar argira  
erreta edo ausiyak,  
ezertarako bearrik gabe  
alper alperrik guziyak.

Suerteza ezin erabakirik,  
legoiak bezin furiyan,  
biurtzen dira indar beterik  
berriz bigarren aldiyan,  
mentzutu edo bertan galtzera  
gutziz koraje aundiyan.

– Mentzutu degu! Kontra ziranak  
zalantzan dirade asi,  
ezin geiago eginda denak  
oso dutenian etsi,  
dijoaz armaz lur estalitzen  
ikaratuak igesi.

Orain eskerrak Jaungoikoari  
eman zaizkagun lenbizi,  
eta ondoren giyariyari  
duen bezela merezi,  
zeren gaur guda balioso bat  
oroipen dan irabazi.

### III

Urrez jantzi ta agai luzeak  
ikusten dira erriyan,  
banderaz eta lorez beteak,  
zinta politak erdiyan,  
aize aldera denak jostatzen  
gutziz graziya aundiyan.

Musika eta kanpanen otsak,  
balkoi apañian damak,  
pañuelo txuriz agurka, pozak  
zoratu nayian danak,  
orla dabilta gozoz beteak  
erri guziyan diranak.

Ara non diran, ara aurretik  
guziyen agintariya!  
Jende azkarra bere ondotik,  
gazte ederra guztiya,  
kalian bete-betian dato, z,  
jendez estaliyak iya.

Erriko jende berdin gabea  
ikusitzen da onela,  
lore politez beren bidea  
estalitutzen dutela,  
zerutik euri jasaren gisa  
jaisten balira bezela.

Zer zoramena! Pozaren otsa  
urrutira da aditzen,  
gozoz beterik diña biyotza  
nola bai duen arkitzen;  
ez dira asko burniz lenago  
galdu diranaz kupitzen!

#### IV

Bukaturikan alegrantziyak  
lenaz entzuten ziranak,  
orain arkitzen dira guziyak  
gozoz ibildu diranak  
indarrrik gabe, zeren itzald  
diran lengo su dianak.

Jende guziya geroztik dago,  
kanpoan eta kalia,  
sosegatuak ezin geiago  
eta guztizko pakian,  
ezer ez balitz pasa bezela,  
bakoitza bere lanian.

Ontan andre bat, penagarriyal,  
ongi negarrez asia,  
kalian dago beltzez jantziya,  
triste ta penaz betia,  
aur bat besoan dubela eta  
eskutik berriz bestia.

Urrikarriyak ikusten dira  
sufrientuben meriyo;  
gelditzen bada iñor begira  
eta entzuten badiyo,  
alako bota triste batekin  
onela esaten diyo:

– Aur aben aita gerrak galdu du,  
ama penak iya illa,  
Jaungoikoaren izenez dabill  
limosnatxo baten billa.

*(Euskal-Erria, 1880.)*

*(1880, Euskarazko itz-jostaldiak Donostian. Oroimengarria.)*

# Lore igartua

---

*(Irungo Euskal-Festetan D'Abbadie jaunak 80 pezetakin eta Laborde-Noguez jaunak makillarekin saritutako moldaera.)*

Baratz berdeko lirain polita,  
usai gozozko loria,  
atzo zenbaiten deseoa ta  
gaur igartuta lajia;  
urruñtasunak zauzkan ezkerorla  
galdutzaz botia,  
zure merio sentitutzen det  
biotza penaz betia.

Txori txiki bat beziñ alegre  
etorri ziñan mundura,  
txortentxo medar berde batetik  
jostallu baten modura.  
Zure orduko preskotasuna!  
Zure orduko itxura!  
Gogoratzean beti sartzen zait  
tristetahun bat petxura.

Galaz jantzita guztiz suabe  
mugitzen ziñan aizetan,  
dama gazte bat beziñ airosa  
udaberriko goizetan;  
uriztatua(1) doai aundiaz  
egun sentiko intzetan,  
baña gaur penaz jartzen naiz zutzaz  
oroitzen naizen denetan.

Lore polita ziñan denboran  
zenbait gustora begira,  
zure kolore piñak ikusten  
gelditu izandu dira;  
dizdiz egiñaz perlaren gisa  
eguzkiaren argira,  
baña lengoko zure dizdizak  
ezer gelditu ez dira.

Betiko galdu zaizkizu lengo  
edertasunen indarrak,  
gabaz ez dizu argi egiten  
illargi eta izarrak;  
ez dizkizu nai intzak gozatu  
goizetan ostoz igarrak,  
denak jiraka or darabiltzki  
lurrean aize iparrak.

Penaz biraltzen diran bezela  
sentimentuak aizera,  
zu berriz beti usai gozoak  
emanaz bizitu zera;  
zure doaiatz orla gozatzen  
aditu ere bazera,  
eskergabeak oinperatua  
azkenerako iltzera.

(*Euskal-Erria*, 1881.)

(1) *Salpicada*. (Egillearen oarra.)

# Jose Maria Zubia “Mari” bere miragarri baten oroitza

---

*(Composición premiada en los Juegos Florales de San Sebastián.)*

Non dira gizon jakintsu aien  
indar sendoak? Non dira?  
Gogoratzian negar malkoak  
saltatzen zaizkit begira;  
nik baneukake menderatua,  
o!, nik Erato-ren lira,  
zer pozik, Mari, ateratuko  
zinduzkian gaur argira!

Eskatzen diot aingeruari,  
eskaka nago zerura,  
argi apur bat sar dizatela  
gaur nere pentsamentura;  
atozte, fama zabaltzalleak,  
egan nere ingurura,  
denak batean kanta dezagun  
zein dan gizon aundi ura.

Odoi beltz pisu bildurgarriak,  
tximist zorrotzen su-garrak,  
beren azpitik ikaraz datoz  
itsasoko deadarrak;  
urikalduen(1) antsi larriak,  
legorrekoen negarrak,  
laburtzen ditu beso sendoak  
eta biotzen indarrak.



Txalupa txiki argal batian  
ausarkiz ziran atera,  
Mari gidari zuela presaz  
urikalduen bidera.  
“Ara anaiak urian -zion-,  
arraun da goazen aurrera,  
itsaso arro indartsuari  
anai geriak kentzera”.

Itsas golpeak puskatu bear  
txalupa menderatuta,  
ala zijoan anaien billa  
itsasopean sartuta;  
olatuari desafioka  
odol guziak sututa...  
Ikusi utsak jartzen zituen  
ille muturrak zut-zuta.

Palo zatitu erbalan edo  
ol puska bati eutsiak,  
olatu zakar irakiñetan  
estu zebiltzan guziak;  
itsas goititu orrolaria,  
turmoi nastuan aiziak,  
o zer trantzetik kentzen zituen  
zenbait gizonen biziak!

Baña egun bat, o zer eguna!,  
triste sartzen zait gogora,  
itsaso puskek arkaitz gañetik  
saltatzen zuten txit gora,  
olatu batek ontan txalupa  
jo ta botarik ondora;  
o zer agudo galduen billa  
Mari irten zan kanpora!

Urezko mendi nabarbenduak  
golpez alkarren furian,  
legoi indartsu zaurien gisa  
orroaz beren aurrian,  
“Ara gizonak -zion- itotzen!  
Ara gaixoak urian!  
Boga, mutillak! Boga korajez,  
denak atera artian!”.

Itsas-egazti mokoluziak  
txilioz denak gosiak,  
egalka jiran beren gañean  
kendu bearrez begiak;  
olatuaren zurrunbulluak  
uzten zituen gordiak,  
ziruritelak ezkutatuak  
betiko beldurgabiak.

Itsaso eta aize zorrotzak  
ala ziraden indartu,  
beren bultzadan arkaitzak ere  
nai zituztela urratu;  
olatu batek istante artan  
bertan zituen ondatu,  
eta... a!, Mari gizarajoa  
etzan geiago agertu.

Biotz aundiko kantauritarra  
beldurgarria urian,  
euskaldun onak biotz barrenen  
gaur daukatena gordian;  
anai askoren salbatzallea,  
beti laguntzen urpian,  
arkitu zuen arte obia(2)  
itsasoaren erdian.

Beti urpean, beti laguntzen  
ziran bere zorionak,  
zenbait alditan eldu ta kentzen  
itsasoari gizonak;  
famak, berriro zabaltzazute  
orain urrutira sonak,  
bada sari au merezia du  
ori egiten zuenak.

*(Euskarazko itz-jostaldiak Donostian, Oroimengarria, 1881)*  
*(Euskal-Erria, 1882.)*

- (1) *Náufragos.* (Egillearen oarra.)  
(2) *Sepultura.* (Egillearen oarra.)

# **Pedro Calderón de la Barca jaunari bere eunkian**

---

Bide, ortikan; kendu zaitezte;  
laja bidien erdiya,  
iztun eder bat pasatu dedin:  
Pedro Calderon aundiya;  
eskribatzalle atzenbagea,  
munduko miragarriya,  
jakintsunaren goiantia ta  
Españiako gloriya.

Gazte-gaztetan lenengo lanak  
zitubeneko argitu,  
famaren otsak urrutitikan  
aguro ziran aditu.  
Zeiñ etzan oso etorki arren  
jakinduriyaz arritu?  
Orain argatik bere orduko  
famak nai dira berritu.

Amairu urte osatu gabe  
argiratu zan mundura,  
gizon jakintsu aundi guziyak  
argitzen diran modura.  
Zer etzan sortu izar berriyen  
arrigarrizko burura?  
An ikusi zan izango zala  
jakintsunetan bat ura.

Bere plumaren arrasto onak  
kontatzen asi gerade,  
argidoratu baliosoak  
zergatik denak dirade;  
orain zeruko izarrak baña  
gorago altxa ta ere,  
ezin goititu genezaguke  
merezi aña beñere.

Biltokirako eskribatutzez  
noizbait gelditzen zanian,  
sarri jartzen zan artikasitzen  
liburuaren gañian;  
bakardadeko leku itxiyan  
ordu denetan lanian  
birtute aundiz aditutzen zan  
ezin sinistra añian.

Vega, Cervantes, Ercilla eta  
orlako askoren gisan,  
urrezko pluma laja ta gero  
gudarietara joan zan.  
Madritik irten, Milan-en sartu  
eta, gelditu gabe an,  
Españiako onraren billa  
andik Flandes-a pasa zan.

Bera bezela, guztiz aundiya  
izanik aren biyotza,  
urrutitikan entzuten zuben  
erriko zorraren otsa;  
beti ausarkiz fedez betea  
urruñduaz eriyotza,  
aguro muestrak eman zituben  
zala gudari zorrotza.

Biyotz aundiya mentzutubentzat,  
gudatzen beso gogorra,  
jakintsuna ta beldurgabea  
eta alaitsu pizkorra;  
beti ezpata dardaratuaz  
leial gudatzen zan orla,  
altxatu zuben arte goi-gora  
bere dierriko onra.

Felipe laubak ekarri zuben  
andik denbora gutxira  
etorki ura eskribatzera  
beraren etxe-andira;  
eta azaltzen ziran bezela  
goitandi aiek argira,  
famaren otsak laister zabaltzen  
ziraden mundu guzira.

*“Bizitza dala ametsa”*(1) diyon  
liburu aundi argatik,  
zer esango det, famatutzeko  
euskarak ez badu itzik?  
Baña lan ura oroitutzian  
zeñek txapela burutik  
ateratuta ez du onratzen  
goitandi ura burutsik?

Zer ziyon Shak, Schegel eta  
zer atzerriko dienak,  
gure erriko jakindeara  
donikatutzen ziranak?  
A!, onratubaz lur eder ontan  
sortu izandu diranak,  
denaren buru autatzen ziran  
beti Calderón-en lanak.

Mundu guziko miragarriya  
orla bizitu izan zan,  
baña gerora bere jatorrez  
aren biyotza jira zan;  
animatikan txit laztanduaz  
bizi berriya elizan,  
bere gogoa ala zan eta  
sazerdotea egin zan.

Baña alare dramaasle ura  
etzan lanetik gelditu,  
argi berriyak mundu guzira  
zabaltzen zuben segitu;  
doaitsu arrek irabazirik  
artan ainbeste meritu,  
Felipe laubak andikan sarri  
onroso zuben saritu.

Errege zuzenbidezko arrek  
jakintsun ura munduban  
sari on batez onratu zuben  
berak merezi moduban;  
bere betiko konfesorea  
izendatu ta orduban,  
eskeñi ziyon biziko zala  
beti beraren onduan.

Onore ura biyotz barrena  
sarturik bete-betea,  
geroztik beti bizi izan zan  
erregeakin batean;  
eskutik pluma askatu gabe  
orla amasei urtean,  
Jaunak mundutik zeru altura  
eraman zuben artean.

Mundu osoan denak dakite  
Calderón izandu dala  
eskribatzalle aundizkatua  
eta gudari leiala;  
kondairak ziñez famatutzen du  
iztun eder ura ala,  
esanik gizon argitsuetan  
berdin gabeko bat zala.

Birtutearen modelena ta  
biotz beraren jabea,  
beartuakin kupidakorra,  
ezer bererik gabea;  
gaizkituaren laguntzallea,  
txit serbitzari noblea,  
ezin beste bat izan liteke  
ura zan baña obea.

*(Euskal-Erria, 1881)*

(1) La vida es sueño. (Egillearen oarra.)



# Bai pozik

---

Kanta txiki bat, bear dezula,  
ziñez eskatzen baldin banazu,  
zeri kantatu bear diyodan  
esan zadazu.

Esango dizut arrats beltzetan  
kazkarabar ta aize txistuak  
nola umiltzen dituen txori  
txiki gaizuak.

Kantatuko det egunsentia;  
edo bestela eguzkiari,  
bere urrezko albiñu eta  
jaioerari.

Zabiltza, bada, zabiltza laister;  
zeren ibiltzen ez bazerade,  
eskatu nazun kanta txikia  
gabe zerade.

(Euskal-Erria, 1882.)

# Txurruka Trafalgar-en

---

Zorigaiztozko egun batean  
Kadiztik ziran atera  
ontzi sendoak geldi geldiro  
itsas urdiñ zabalera;  
aize terralak belak zuriak  
bultzaka ipar aldera,  
ala joan ziran beldur gabeak,  
ala etsaien bidera!

Odoi gabeko zeru urdiña,  
inguru alai garbiak,  
sarri ziraden itsas altuan  
aurrez ontzi gidariak;  
koraje aundiz alkar galtzera  
amorratuak guziak,  
itsaspe artan ondatutzeko  
gudari eta ontziak.

Zeruba eta itsas zabala  
estali ziraden ketan,  
zer gertatu zan, Jesus laztana?  
Zer zan urruti aietan?..  
Sutunpak gogor danbetakoka,  
ontzi aundi bat garretan,  
bestea berriz karraskotsaka  
urperatutzen pusketan.

Aize txistuak, tximist dardarak,  
soñu aundiko turmoiak,  
asarretuta oso bezturik  
egin nayian ler goiak;  
milla pusketan erori arren  
zeru azpitik odoiak,  
zorrotz gudatzen ziran alare  
gure ureko legoiak.

Kupida bage urratu bear  
olatu eta aiziak,  
gureak eta gurekin ziran  
prantzes lagunen ontziak;  
palo pusketan bela zatiak,  
kaskoak zuloz josiak...  
Orla zebiltzan etsaiak ere,  
orla ingeles guziak!

Etsaien buru Nelson zutela,  
beldurgarrizko sarrera  
egiñik, joan zan indar askoren  
arrokeriaz aurrera;  
baña ontzi bat, Txurruka buru!,  
irten da bere bidera,  
etsai arroa estu jira zan  
lengo bidean ostera.

Sutori(1) baten modu berean  
ikusten ziraden sarri,  
ontzi guziak alkar puskatzen  
zeren gogor ziran ari;  
sutunpak sutzen lertu bearrez  
balak tiriaz alkarri,  
denak nai zuten erriko onra,  
denak txit altuan jarri!

O, zer korajez gudatzen ziran,  
zer zorrotz eta gogotik,  
erasoaz ta ezkudatuaz  
indartsu biotz guzitik!  
Sua ta kea zurrunbulluan  
goratu arren uretik,  
etsaien billa itsas barrena  
salta nai zuten ontzitik.

Gero... a!, gero ezkutatuak  
ke lodi baten azpian,  
ziruritela purrukatu ta,  
a!, ondatuak urpian;  
baña berriro odoi azpitik  
azaldu eta batian,  
zer erasoak, zer burruketak,  
erortzen ziran artian!

Sei ontzi etsai lodien kontra  
indartsu gudatutzen zan  
bakarra *San Juan Nepomuceno*,  
laja zuena zer esan!  
Baña geiago izanda ere  
nola gudatuko etzan,  
ontzi artako legoi pizkorren  
gidari Txurruka bazan?

Ezkerrerontztik alde eskaira  
laister jira ta atzian,  
denak Txurruka, gizon azkar au,  
denak zatitu nayian!  
Zauritu zuten! Baña sarturik  
barrika iriñ batian,  
zion: "Au ez da ezer ta segi  
sutzen mentzutu artian".

Zertan gudadzen ziran aiñ estu,  
zertan alako larria,  
denak batean ala sutzeko  
ontzi bakar gudaria?  
Indar aundiak batera bildu  
irabazteko gloria...  
Zer gudariak! Ezin mentzutu,  
seiak!, Txurruken ontzia.

Ordu askoan ikusirikan  
eziñ gaindurik(2) atera,  
sutunpen abo guziak jarri  
zizkaten leku batera.  
Ill zan Txurruka!... Ontzia berriz  
zuloz josia urpera...  
Orduan jatxi zuen altuan  
arro egon zan bandera.

Jibraltar-era eraman zuten  
ontzi guzia pusketan,  
berritu eta irukitzeko  
onroso ango uretan;  
gero kamaran, ate buruan  
eta urrezko letretan  
jarri zioten *Txurruka*, zeren  
ausarkia zan gudetan.

Miragarrizko erespetoan  
euskaldun aren izena,  
geroztik beti onratua zan  
ala merezi zuena;  
ontzi-kamara ikustatzera  
sartu nai bazan, aurrena  
burutsik jarri azitzen zuen  
gero sartzeko barrena.

Txurruka umant(3) aren izena  
indartsu leku denetan,  
famaren otsak zabaldu ziran  
presaka urrutietan;  
kontatu ere iskribatzalle  
denak beren kondairetan.  
Españiako glori aundi bat  
zala itsas gizonetan.

(*Euskal-Erria*, 1882.)

(Baserritarra, 82 zenb., 1907-XI-23)

(1) *Volcán*. (Egillearen oarra.)

(2) *Ventaja*. (Id.)

(3) *Héroe*. (Id.)

# Artzai-jolasa

---

*(Poesía selañada con premio extraordinario  
en los Juegos Florales de San Sebastián de 1883.)*

Gozozko penak ara argira artzai birenak;  
Rufino eta Martina dira beren izenak.  
Bai, kanta bear ditut orantxen keja eztiyak;  
bai, kanta bear ditut beraren kontu guztiyak.  
Ardiak ere arreta aundiz, umill, gaixoak,  
entzuten zeuden amore kontu aztutakoak.  
Entzun itzazu beraren ordu argi illunak,  
entzun itzazu artzaitxoaren kantu legunak...  
Eguzkiaren jira guzitik argi luziak  
ongiro aundiz jaisten ziraden bizi-biziak;  
eta Rufino, etzanda aritz baten oñean,  
oroitz aundiko menditxo berde baten gañean,  
presaz pasiaz aldamenetik pauso ariñez  
txit ur garbia, bide guzian soñu egiñez,  
eta ur aren *mur mur* soñura ziñez esanaz,  
modu onetan arrazoitzen zan kejak emanaz...

*Rufino.*—

Marmola baña gogorragoa nere kejari,  
eta petxuan erretzen nauen su biziari,  
elurra baña izoztuago zaude guzia.  
Illtzen naukazu! Eta beldur det, beldur bizia:  
zu gabetanik, zeru argia, zer daukat gero?  
Zertarako naiz, zertarako zuk laja ezkerro?  
O!, txit lotsa naiz iñork onela ikusitzea,  
zuregandikan orren gorrotoz gelditutzea...

Eguzkiaren ari sutuak zabalduzuean  
mendietan da ibartxoan, da esnatutzean  
txori, egazti, animaliak eta jendea,  
alai paseaz tontor altuak, ibar berdea  
eta egalka aize garbian txori libreak,  
sinista nazu, isurtzen zaizkit malko aleak.  
Eta zu nere bizi tristeaz oso azturik,  
agertu bage zertxo bat ere sentimenturik;  
zuregatikan, nere Martina, nua iltzera,  
eta nigatik apur bat ere kupi etzera;  
zu zera nere fede ederra galdu dezuna,  
baña zu zera fede on ori zor dirazuna.  
O, Jesus ona! Esan zadazu, esan zergatik,  
ikusten dezun ezkeru zeru altu ortatik;  
zertan aur oni zerbait gaztigu bigaldu gabe  
zaude, izanik zu lur ontako guzien jabe?...  
Zuregatikan gerizdun saroi eder berdea,  
zuregatikan mendi altuko bakardadea,  
gustatzen zaizkit baratz alaiak eta basoak;  
zuregatikan arbol tantaiak, aize gozoak,  
lili zuria, krabeliñ eder gorri-gorria,  
eta gañera deseo nuben udaberria.  
Baña o nola arkitzen nintzan leialtadean,  
zure petxuan zer gordetzen zan jakin gabean!  
Arkumetxoak kupidaz daude neri begira;  
arri gogorak bigundu eta zatitzen dira;  
arbolak ere diruditela makur antzean,  
eta entzuten nauten txoriak kantatutzean,  
errukituaz, jarri naute, o!, berak kontuan  
nere iltzea nola dioten beren kantuan.  
Zure petxua besterentzako bada gordea,  
utziko ditut baratz alaiak, saroi berdea;  
utziko ditut ardi umillak, arbol aundiak,  
eta aserik negar malkotan penaz begiak,  
laister joango naiz zuregandikan urrutia;  
laister joango naiz ontzi batean Amerikara.



Martina.—

Zer esan dezu azken itz ortan? Jesus laztana!  
Zer buruzbide gaizto sartu da gaur zuregana?  
Urez ontzian, urez urruti joan nai dezula!  
Arren, orlako lanikan pentsa ez dezazula!  
Urian joanak badira lenaz, galduak noski,  
zure bi anai; eta aiekin ez dezu aski?...  
Baso saroian entzun dizkizut keja biziak;  
entzun itzazu petxu leialen egi guziak.  
O!, txit urruti izanda ere, beti aurrean,  
beti nerekin, beti lotuta zauzkat gordean.  
Nola ixildu, nola estali gaur nere poza,  
zuregatikan senti banuen eri biotza?  
Eta miñ arren indar gogorak, uste gabeen,  
geldi-geldirik sartu ninduen iya lur bean.  
Txiribistatzen duen modura matsa gozoak  
zerurañoko zumar tantaien adar osoak,  
arek itsasten duena baña ere geiago  
zauzka, o!, nere biotz samurrak laztanduago.  
Muga gabeko landatxo ontan erakutsiaz  
naitasun ona, eta beldurren kejak utziaz,  
biziko gera arditxoari *ño ño* deituaz,  
eta artalde eder mardula pozkidatuaz.  
Gañera berriz aukeratuaz sagar umoak,  
udare bigun, matsa gorrien bere zumoak,  
txori txikiak *pirripipika* kantu legunez,  
aritz loditik gereitz azpitik aiek entzunez.  
Zigortxo batez lazo artetsu mallaz egiña,  
arrapatzeko zozo jalea, erbi ariña,  
egazti gaizto txori txikien arraparia  
eta iztingor begi zorrozdun egaalaria.  
Baña zergatik arkitzen ziñan aiñ izutua,  
jakiñik zukan senti dedala petxu sutua?  
Ez al zerade oroitzen nola txiki-txikitan  
igotzen ziñan intxaur gañera neregatikan,  
eta lurretik aiek bildu ta nola jatera  
igotzen giñan arkaiztxo altu baten gañera?

Nor goratzen zan gingak biltzera arbol aundira?  
Nork ekarritzen zizkidan gero magal garbira?  
Eta azkenez, nor irteten zan nere bidera,  
usai gozozko loratxo sortak eskeiñtzera?

\* \* \*

Txantxetan ere entzun orduko "Amerikara!",  
zillar bizen gisan sartzen zait bildur ikara.  
Zenbat dirade aberastu ta beren errira?  
Eun, berreun, millatik zenbat biurtu dira?  
Bat edo beste mirari batez azaldutzea  
zerbait fortunaz, ori da dana? Zer izatea!  
Ara bultzatu artean beti aginde onak,  
zillar nai ezik baleude gisan ekarri sonak;  
eta ibarrak, eta saroiak, eta basoak,  
danak utzi ta joaten dirade gizarajoak.  
Zer egin dute ara joandako zure lagunak?  
Non gorde dira ustez berentzat zeuden fortunak?  
Urrutietan, adiskide bat albulan gabe,  
orla galdutzen dira, Rufino, bost doakabe!  
Kontatzen ditu frankotan Pello Arizpekoak,  
kontatzen ditu Indi aietan pasatakoak.  
Entzun zaizkazu, entzun Pellori ango trantzak,  
eta dardara sartuko dizu oroitutzak.  
Ikusten dira, dionez, baso gaizki landuak,  
landa gorriak, eguzkiaren suak galduak;  
arbol bat gabe, azken bageko kanpo luzeak,  
eta frankotan ito bearrez suzko aizeak.  
Eta, Rufino, anaien kartaz oroi etzera,  
urrikarriak nola nai zuen bere etxera  
laister biurtu, ikusirikan ango bizia  
esanaz zala loteki(1) zuri bat izatea?  
Ni baldin banaiz benez benetan zure maitea,  
biotzetikan eskatzen dizut: geldi zaita.

*Rufino.*—

Bai milla bider. Zu zera nere laztan gozoa  
eta zurekin igaroko det bizi osoa.  
Beti nerekin biziko zera kejarik gabe.  
Ni izango naiz betiko zure biotzen jabe.  
Zumar altuen azpi berdeak gereitz jartzean,  
eta ardiak gereitz artara alderatzean,  
zuk kontatuko dituzu gure arkumetxoak,  
zuk kontatuko dituzu zenbat diran gaixoak.  
Iturriaren otsa geldiak ta suabeak,  
egaztitxoak, txori berritsu jabe gabeak,  
entzunaz beren kantatxo garbi polit legunak,  
aiek izango dirade beti gure lagunak;  
aiek bezela biziko gera, izar laztana,  
aiek bezela igarotuz bizitza dana.

(*Euskal-Erria*, 1883.)

(1) *Esclavo*. (Egillearen oarra.)

# Erriko seme donostiarra

---

(Donkituak Jose Salaberria jaunari)

Urruti bizi arren, urtetik urtera  
errira azaltzen da, iñauteriyetan,  
desiaturik bere lagunen artera  
farrez, burlaka edo txorakeriyetan.  
Eta ateratzian iriya kalera,  
laister ikusitzen da kale kantoietan  
“Je! Je!” oju egiñaz, txuliatzen bera,  
naiz jo ta zilipurdi egiñ antxe bertan.  
Patxandiyaz zapata koxkordunez otsa  
egiñaz or dijoa, panparroi xamarra...  
Baña ongillia da beraren biyotza!  
Guazen... itz baterako, ez da mutil txarra.  
Zeiñ dan galdetzen dezu? Ez al zera lotsa!!  
Zeiñ naizu izatia? Joxe-Maritarra!

\* \* \*

Iñoiz errira sortzen badira  
doakabeak malkoz beterik,  
lagundu naian bere errira  
ez du orduban ezer bererik.  
Goiz-goiz azaldu nai det argira  
danboliñaren otsak pozturik  
iri adar-motz bati begira  
gizontasunak oso azturik.  
“Emen dek! Teink! Teink!” farrez korrika  
kalerik-kale, aur bat bezala,  
sokak naiz bota zilipurdika:  
baña ibilli arren an ala,  
farrez, jostatzen edo amilka,  
zeñek ez daki prestuba dala?

(Euskal-Erria, 1883)

# Donostiari

---

*(Poesía señalada con mención honorífica  
en los Juegos Florales de San Sebastián.)*

Itsaso eta mendi alaiak  
inguratuak,  
gaztelu sendo berde berde bat  
buru duela,  
altxatzen zaizka oñetik etxe  
zuri altuak,  
usa tortolak talde luzean  
diruritela.

Gogoz kantatu nai nioke gaur  
Donostiari,  
zillar zuria bezin garbiro  
bizi zalea,  
gizon argien seaska eta  
dierrari  
glori aundiak irabazitzen  
laguntzallea.

Baña nik nola kantatuko det  
argiratzeko,  
indarrrik gabe arkitzen bazait  
biotz gaixoa?  
Arren, Apolo, bigal zadazu  
ukitutzeko,  
bigal zadazu, Apolo, zure  
lira gozoa.

Bigal zadazu, baldiñ apur bat  
kupi bazera!  
Bigal zadazu jira ditzadan  
saroï berdeak,  
kopet zabala aurrez jarririk  
aize aldera,  
azaldutzeko Donostiaren  
doai gordeak.

Bere lurrean, esazu!, zeñek  
ez du gozatzen?  
Zeïñ ez da ziñez pozgiratutzen  
bere putzuaz?  
Baga uztaitu pizkorrak nola  
diran goratzen,  
urre moduko ondar txe-txea  
miliskatuaz.

Aurrez daukazki esku bastoak  
ongi landuak,  
arri gogorrez altxatutako  
etxe galaiak;  
beraren jiran itsas urdiña,  
mendi altuak,  
baratz loratu, saroiak eta  
kanpo alaiak.

Murall altuak gogor zeuzkanak  
jiran lenago,  
purrukatu ta amildu ziran  
danak lurrera;  
Donostiaren azalgarria(1)  
geroztik dago  
bere banderan zabal-zabalik  
“Beti aurrera”.

Ara landetxe berri berriak  
danak nastuak  
mendigañetan, atsegiñduaz  
aize gozoa,  
egaa zorrotzez diruritela  
ara goituak,  
andik obeto ikusteatik  
erri osoa.

Ikusgarriak dira geroztik  
bere kaleak,  
ikusgarriak dirade bere  
arboltegiak;  
aitortzen dute etortzen diran  
eder zaleak,  
erri ontako gauzak dirala  
ikusgarriak.

Jai egunean apaindutzean  
dama gaztea,  
zeñi etzaio gustatzen bere  
gorputz liraña?  
Aren modura arkitutzen da  
graziz betea,  
apaindutzen dan jai eguneko  
izarra aña.

Argatik ziran lur azpiratu  
urre montuak.  
argatik dauzka ederren famak  
irabaziak;  
argatik dauzka banen banako  
etxe altuak,  
argatik aztu azitzen ditu  
erri guziak.

Beti garbiro, zeru txiki bat  
diruriela!  
Konparatzeko ez du merezi  
beste itzikan;  
an ikusten da, pena sentitzen  
balu bezela,  
uda ederra Donostiatik  
joan nai ezikan.

Kanpo zabalak lorez jantziak  
inguruetan;  
arrigarrizko putzu doaitsu  
bati begira,  
antxe goizeko aizetxo bigun  
gozotsuetan,  
jabe gabeko txoriak ere  
jostatzen dira.

An ikusten da, zeru azpitik  
diz diz egiñaz,  
saltatu nairik eguzki eder  
zabal alaia,  
gozatutzera usai gozoaz  
eta lurriñaz;  
ala maite du euskaldunaren  
erri galaia.

Eta nik ere, arranoaren  
modu berean,  
egaa zabalez igo nai nuke  
zeruetara,  
ordu askoan, poza sentiaz  
biotz nerean,  
andik begira egotiatik  
Donostiara...



Zeñi etzaizka baso berdeak  
asko gustatzen,  
eta gañera txantxangorrien  
kanta gozoak?  
Zeñi ez dio biotz guztira  
poza banatzen  
egun sentiko ollar gaztien  
kukurrukoak?

Ederrak dira baratz loratsu  
eta mendiak;  
ibar saroiak ere guztizko  
ederrak dira;  
baña ikusi nai badirade  
gauza aundiak,  
arrizko zubi sendo artatik  
jarri begira.

Ipar lasterrak jostalkeria  
eta pasadan,  
musuz beterik kopeteraño  
bela zuria,  
an ikusten da ontzi goitia,  
bere bultzadan  
killa zorrotzez erdiratutzen  
itsas geldia.

Ikusten dira itsas egazti  
arrapariak,  
egaa zabalez jirabiraka  
kanpo aietan,  
eta goituaz eraz biziro  
gero guziak,  
ezkutatutzen diraden arte  
urrutietan.

Baga indartsu orrolariak  
beren bidean,  
arkaitzak ere jo ta apurtu  
nai dituztela;  
baña indarrak galdu ondoren  
sosegatzean.  
gelditutzen da kristal garbi bat  
balitz bezela.

Onla daukazki inguruetan  
doai ederrak;  
berak txit arro altxatutzen du  
kopet garbia.  
Etorri bitez ikusitzera  
dierritarrak,  
Irutxulueta izendatzen dan  
euskal erria.

(*Euskal-Erria*, 1884.)

(1) *Lema*. (Egillearen oarra.)

# Bere seme batek Donostiari

---

*(Poesía señalada con mención honorífica  
en los Juegos Florales de San Sebastián de 1883.)*

Ameriketan neukan denboran  
osasanako pobreza,  
ongi jartzeagatikan nuben  
egin Lezo-ra promesa;  
aginde ura etzalarikan  
kunplitzen oso erraza,  
noizbait etorri naiz da entzun det  
Lezo-ko eleizan meza.

Au dala bide allegaturik  
Donostiako errira,  
non nabillenic ez dakitala  
eman det guztian jira;  
lendabiziko jarri naiz zarra  
deritzonari begira,  
neretzat onen etxeak ere  
geienak berriak dira.

Ikuste batez arkiturikan  
ezin esan ainbat grazi,  
segiduban naiz bere eskiña  
guziak miratzen asi;  
bañan zer pena alde batera  
-nonbait ez dirade bizi-  
erri guztian ez ditut amar  
lagun lengoak ikusi.

Ez det billatu non dan ni jaio  
nintzan olezko barraka,  
au zan tokiak bere gañean  
etxe eder bat baidauka;  
kaleak ere lendik onera  
izen trukatuba dauka,  
nere jaio ta bizi lekubak  
lengo antzikan ez dauka.

Alde batera senti det poza,  
bestera berriz det pena,  
ikusi gabe ezkutatzea  
nere jaioterri lena;  
gaur iruri du uso txuri bat  
itsas gañean daguena,  
ego ederrak zabaldurikan  
egan joan bear dubena.

Ez dira lengo murru kopeta  
beltz itsusiak ikusten,  
beren lekuban zer ibiltoki  
ederrak egin dituzten!  
Aiek etzien usotxoari  
egak zabaldutzen uzten,  
zori onean arrasetikan  
guziak kendu zituzten.

Oso kanpora ikusten dira  
milla bat etxe berriak,  
beren artean jauregi-etxeak (1)  
diruritenak erdiak;  
kaleak eta plazak ederrak,  
dendak begiragarriak,  
ametsetako gauza bat dala  
diruri nere erriak.

Etxe aundi ta ederrak egin  
baldin badira ugari,  
ez dira ere eskasagoak  
egiten diranak ari;  
beste askoren artean Plaza  
Gipuzkoan da bat ageri,  
jendea prankok begiratuko  
diona bere lanari.

Pauso lekubak ederrak daude,  
politak lore tokiak,  
ur-amilde ta iturritxoak  
nola txabola txikiak;  
oekin argi-oin burnizkoak,  
soñu leku ta alkiak,  
begiragarri jartzen ditula  
gabaz tximistki(2) argiak.

Uztai urrezko baten erdian  
dauka itsaso urdiña,  
bere grazia ederraz biltzen  
diona zorion diña;  
perla polit au dago zeruko  
eskiñ batean egiña,  
itz batez, au da mundu zerubak  
elkartzen diran eskiña.

Emazteari segiran bear  
diot nik adierazi,  
etor dedilla Donostiara  
bere pamili ta guzi;  
ez det au bañan toki oberik  
Indi guzian ikusi,  
ez nua berriz Amerikara,  
ementxen bear det bizi.

Erririk graziz orniturikan  
iñon arkitutzen bada,  
beretako bat gure probintzi  
Gipuzkoan Donostia da;  
lurrak gañean jaso lezaken  
politenetan bat bada,  
aurrera ere dan bezin polit  
gorde dedilla al bada.

(*Euskal-Erria*, 1884.)

(1) *Palacios*. (Egillearen oarra.)

(2) *Luz eléctrica*. (Id.)

# Irakurgai txiki bat beste batetik moldatuba

---

## I

Gozotasunak pozturik dana  
esaten niyon: – Gaur arratsean  
sartu bear det, izar laztana,  
ixil-ixilik baratz zurean.

– Etzaitezela joan, iñork nere  
onraren dudik izan ez dezan;  
ni ez naiz joango: lenago ere  
ongi dakizu zer nizun esan.

Au entzun niyon eta segiran,  
despedituaz gogo txarrean,  
aingeru arrek erantzun ziran  
farrez bezela: –Bigar artean.

## II

Gaba zegoan ederra nola  
berri onaren mandatariya,  
odoietatik bidatzen zala  
illargi zabal geldi geldiya.

Modu onetan erri gañera  
zabaltzen zuen argitasuna,  
beñ tristura ta beñ alegera,  
itzala eta ongitasuna.

Naitasun fiña guztizko zoro  
barrenduba zan biyotz nerera,  
eta bidatu nintzan gozoro  
maite nuenen baratz aldera.

Laister arkitu nintzan urrean  
iñork ikusten ez ninduela,  
eta barrendu salto batean,  
piztiyak sartzen diran bezela.

Baña zertako joan nintzan ara,  
jakiñik izar berriya lotan  
egongo zala? Baña zertara,  
laztantxo ez arkitzekotan?

.....

An ikusten da bizitegiya.  
Arzulotxo bat gorde gordean  
berak daukala, eta jarriya  
erramu eta lore tartean.

An ikusten da erdi-erdiyan,  
osto berdez inguratua,  
txit majestade eder aundiyan  
nere kutunen erretratua.

Marmol zuriyan! Baña egiña  
erozeiñ arritzeko moduan.  
Lan eder ura bera zan diña  
irabazteko famak munduan.

Onlako arrats berdiñ gabian  
ikusten dira jiran ostoak,  
bere arpegi legun garbian  
egiten itzal gustatzekoak.

Aize biguñen bultzadatxoak  
zerbait mugitzen diruriyela,  
eta errañu arpegikoak  
farrez jarritzen balu bezela.

Miragarrizko mugira aiek  
ganbiatuaz punturo ola,  
duda gaberik bazirudien  
egiyetako fartxo zala.

Nik ez dakit zer gertatzen zan an;  
baña begira negoanean,  
farrez bezela abiyatzen zan  
neri begira jartzen zanean.



Amoriyuak sutuba dana,  
esan niyon nik berari ontan:  
– Utzi nai nazu, izar laztana,  
muñ bat ematen abotxo ortan?  
Amets on arrek nasturik ala  
nola segiran penaz sufritzez,  
uste nuben, ail, egiñ zirala  
oju aundi bat esanaz ezetz.  
Begiratuaz neronen jiran  
eta galdurik zoro guziya...  
boza on batek erantzun ziran  
baietz eder bat garbi-garbiya.  
Illargiaren argi ubela  
odoi beltz batek itzalirikan,  
gelditu ziran lenaz bezela  
baratz saroiak illundurikan.  
Billatu nairik marmol arriya  
musututzeko ezpaintxo otzak,  
beste gauza bat gustagarriya  
sentitu zuen nere biyotzak.  
Ontan berriro zabaldurikan  
illargi eder aren argiya,  
ikusi nuen txokaturikan  
gauza bat ongi arrigarriya:  
Etxeko morroi mutur zabala  
neri begira farrez lertutzen  
an azaldu zan, ta ari zala  
presaz bezela galtzak lotutzen.

(Euskal-Erria, 1885)

# Euskaldun leial bat

---

(Poesia primada con **un objeto de arte.**)

## I

Indartsu zure begiyetatik  
saltatutzen da txingarka sua,  
indar gogorrez dardaratzen da  
ukabildu ta zure eskua;  
lantzaz presta ta beldur gaberik  
igarotzeko mendi goitsua,  
zer da gaur emen gertatzen dana?  
Nora zuaz zu orren sutua?

Ez al dakizu bearra dala  
bostortzekoa zelai landetan?  
Zu gabetanik belardi txarra  
sortuko dala ibar aietan?  
Eta lajarik zure etxeko  
gaixoak negar samintsuetan!...  
Zer gertatzen da! Zer da gaur emen!  
Nora zuaz zu modu orretan?

Zure eskuak botatutzen du  
urrun aitzurra ordoiturikan,  
artuaz ziñez bere trukadan  
lantza luze bat zorrozturikan.  
Itzultzen zera jaiot erriko  
jolas gozotsu ederretikan?  
Leial tristea! Zuk zer etxera  
bilduko dezu gerretatikan?

Biurtu zazu begiratua  
bizkar aldera izuz beterik,  
ikusitzeko zure laztana  
lurreratua penak botarik.  
Kupi zaitea! Entzun zaiozu!  
Ez du deseo ezer besterik:  
ez da zerutik jaixten beretzat  
zoriontasun gozoagorik.

Nekazariya! Zer gorroto da  
zure petxuan orla piztutzen?  
Zer pentsamentu illunak zaitu  
naskidatu ta orla sututzen?  
Zu joan ezkerreko dana galtzea  
dala ez dezu, arren!, ikusten?...  
Zuaz laisterka, ez bazerade  
malko oetaz kupiratutzen!

Eta etzera konturatuko  
txoriyak ere eske daudela,  
beren izkeran ostoa tartetik  
erregutuaz etzuzazela?  
Zuaz utzirik arkaitz beltzeko  
lore basoti(1) ura bezela?  
Nekazariya! Mintza zaitea  
nora zuazen su-gar orrela.

– Atzerrikoak mugak autsi ta  
igaro dira gure lurrian,  
eta ausardiz datoz aurrera  
suarmatuak soñu gerrean;  
sorterriaren deia sartu zait  
aiñ bizi eta aiñ indarrean,  
sutu nai ditut etsai gaiztoak  
jaiot-erritik bota artean.

## II

Ara balaren txistu biziak!  
Ara sutunpen tunpadakoak!  
Erituaren antsi larriak,  
laguntza eske gizarajoak.  
Ikusten? Orra azken agurka  
pulunpatuaz odol putzuan!  
Ara etsaiak bikudatuka(2)  
landetan eta mendi goitsuan,  
erauntsi naian gure Erriya,  
lapurtu eta sutzeko dana,  
nola katamotz orrolariya  
saltatutzen dan basauntzagana.  
Ai!, eskudatu gabeko izarrak  
eta aingeru gaitzik gabeak,  
igarotzera gure ibarrak,  
danak lirake burniz paseak!  
Kupira gabe, danak segiran  
garaitzallien umill oiñpean,  
nola loreak makurtzen diran  
ekaitz gogorak zatitutzean.  
Oñeztatuaz etxeak gero  
urruindurikan lege santuak,  
aiñ gorrotoz ta aiñ gaiztapiro  
lurreratu ta arrastatuak.  
O!, sorterriyen maitaerak dit  
indartzen eta sutzen biyotza;  
bere oroitzak bakar-bakarrik  
zabaldutzen nau petxuan poza.  
Eta sututzen bere pozean  
apurtutzeko etsai goitiya,  
nola austen dan arkaitz beltzean  
itsaso arro orrolariya.  
Igesko dira izuz beteak  
gelditzen bada iñor zutikan,  
nola itzultzen dan basaurdea  
eiz-zakurren zaunketatikan.

.....  
Baña menturaz egiten bada  
etsaia gure lurraren jabe,  
milla bider ill obeago da,  
ez gero bizi onrarik gabe!

### III

Neregatikan asko egin du  
aita zar leial prestu maiteak,  
zor aundi bat det irozotzeko(3)  
onoretsuen azken urteak.  
Baña biyotza naiz penak bota  
jaiot-etxea onla uzteak,  
gaitzik gabeko aingerutxoak  
negar malkotan ikusitzeak,  
jolas gozoak, ordu legunak,  
txoriyen deiak oroitutzeak...  
Ez da egite miraritsua  
fedea piztu eta sutzeak,  
zeña ordaintzen duen mugetan  
ditxa labur bat irabazteak!...  
Ez dakit pozak edo damuak  
nere begiyak malkoz beteak  
illuntzen dira, arras beltzean  
nola izarrak diran gordeak.  
Ugeraldiya(4) ekaitz gaiztora  
golpez bezela saltatutzeak;  
aize bultzadak bere bidean  
arbol igarra zatitutzeak;  
nere burua naskidatzen du  
jaiot-erriko mugak austeak,  
baña albotik lagunduko nau  
Jaunak gordetzen nere usteak.  
Ama nerea! Ez egiñ negar  
eskatzen dizu zure semeak,  
barrenkoi antsi triste orrekin  
negartzen dira zar ta umeak.

Ama, ez esan, arren, aur abek  
sarri dirala aita gabeak!  
Ama, ez galdu esperantzikan!  
Ez geiagotu atsekabeak!...  
Aita, musutzen laja nazazu  
mantxa gabeko urdiñ illeak;  
azken laztan bat eman bear dit  
nere betiko ongigilleak.  
Estutu, aita, biyotz berean!  
Atozte, aur ta anai nereak!  
Atozte nere petxu larrira  
zorionaren ekartzalleak.  
Onla!... Bai, ongi arrimatuak!  
Estutu!... Berriz!... Eziñ nezake.  
Abek dirade azken tristeak.  
Abek dirade gozoz beterik  
gero aztutzen diran nekeak,  
beren besoak zabaldutzean  
libertadea eta pakeak.

(1885, *Euskal-Festak Donostian, Oroimengarria*)  
(*Euskal-Erria*, 1886)  
(*Baserritarra*, 91 zenb., 1908-III-28)  
(*La Baskonia*, 1907-VII-30)

- (1) *Silvestre*. (*Euskal-Erria* ren oarra.)
- (2) *Desafiando*. (Id.)
- (3) *Sostener*. (Id.)
- (4) *Calma*. (Id.)

# Iñauteriyak Donostiyan (1) lenago eta oraiñ

---

## Lenago

Antziñetik dator  
iñauteriyetan  
Donostiya zala  
famatuena,  
festak moldatzeko  
egun pozkiyetan,  
zeña zan doaiaz  
apainduena:  
alkarri laguntzen  
zar eta gazteak,  
goiko kalekoak  
nola auzoan,  
guztiyak batu ta  
kontentuz beteak  
an gertatutzen zan  
erri osoan.

Egun zoro aiek  
allegatutzeak  
alaitzen zituen  
erriko danak:  
mutill kaskar eta  
jostallu zaleak,  
nola gizon aundi  
menatuenak.(2)  
Guztizko paketsu,  
atsegindurikan  
jatorrez dutenak  
ainbeste grazi,

ibiltzen ziraden  
ume egiñikan,  
zeñek far geiena  
eragiñazi.

Ainbeste ziraden  
famak zabalduak,  
bada beste gabe  
jaun bi onera  
Paristik ziraden  
guztiz zaletuak  
etorri festa aiek  
ikusitzera.

Aundi ta txikiyak  
biurtu zirala  
-jaun aiek zioten-  
guziyak ero;  
iru egunetan  
sano bat etzala,  
danbolindariya  
kendu ezkerro.

Ala egiñikan  
fama aien jabe,  
erabat utzirik  
lantegi dana.  
guziyak kontentu,  
aserrerik gabe,  
au zan Donostiyan  
gertatzen zana.  
Geroztik gazteak,  
lenagotik zarrak  
deitutzen ziraden  
buru ariñak,  
*erriko-xeme* ta  
*Joxemaritarrak*,  
zentzu gabekoak  
ta kaxkariñak.



Geieneko ere  
iru urte ziran  
Donosti polita  
zutela sutu,  
negar samiñ aiek  
aztuta segiran,  
txit festa ederrak  
zituzten sortu.  
An estudianteak,  
an artzaigokiak,  
muzorrore-gille  
guztiz duitxuak,  
Andaluziako  
ijito nausiak,  
Balentziakoak  
berriz itxuak.

Urrena ezpata-  
dantzari gozoak,  
nola dendarien  
festa berriya,  
zortziko ederrak  
eta gozotsoak,  
alaitzen zutenak  
ongi erriya.  
Zerbait geroago  
baratzagilleak,  
guztizko panpoxa  
eta arroak,  
txirikortatu ta  
luzean illeak,  
eguzkiya baña  
ederragoak.

Jantzi kolorezko  
ñibirri ñabarrak,  
lore politakiñ  
ongi egiñak,

lastozko txapelak,  
zinta beltz zabalak  
eta panillazko  
gorontza fiñak.  
Giza-semearen  
txapel egokiyak,  
mirtos txalekoak  
jiran ederki,  
gerriko sedazko  
lazodun gorriyak,  
eziñ zitezkean  
egon obeki.

Zerbait geroago  
“Zapatari festa”,  
pazia-gilleak  
“Turkiyakoak”.  
“Langille maisubak”,  
zortzikoak eta  
“festari okiñak  
Frantziyakoak”.  
Gero andik laister  
berriz langilleak,  
arotz, perratzalle,  
tornularia,  
arropa saltzalle,  
zapatagilleak,  
galdarakiña ta  
txorrotzalliak.

Ezta emen festik  
izandu eztanik,  
iltzeko zezanak  
ta sokakoak  
erabilitzea  
aztu gabetanik,  
kalerikan kale  
azkenekoak.

“Kriskitin kraskitin”  
“Txulo txulito” ta  
“Iriyarenak”,  
“Dantxaritxo” eta  
gañera “Pispilin”,  
Donostiyakoak  
dirade denak.

## **Oraiñ**

Oraiñ len bezela  
erokerirako  
erri igualikan  
beste bat ezta;  
irteten dirade  
egun sentirako  
zelebratutzera  
patroien festa.  
Atxero bizartsu  
ongi apainduak,  
*tarrapatataka*  
atabal dunak,  
kalerikan kale  
errenkaratuak,  
juaz guztiz soñu  
eder legunak.

Kandel-egunean  
iñure gazteak,  
egiyetakoak  
diruritela,  
ongi apainduta  
graziyaz beteak,  
pastel saltzallea  
antxe dutela.  
Artzaitxoan dantza  
ta kantu nasteak,  
nola pazi-gille  
Ungriyakoak,

beren txapel zabal  
ta txima luzeak,  
guziyak guztizko  
ikustekoak.

Goizean goiz aski  
dira abiyatzen  
alegeratzeko  
laister erriya,  
ziririkoakin  
*ti ta* abisatzen  
allegatu dala  
iñauteriya.  
Aguro diraden  
ikusten nastuak  
gazte eta zarrak  
plaza aldera,  
garrotxdunak baña  
geiago poztuak,  
goizero iriya  
txuliatzera.

Amaikak aldera  
plazatxo batetik  
irteten dirade  
festalariak,  
pasiar aurrera  
Ernani kaletik  
bat bezin bestea  
ikusgarriak.  
Zaldizko galaiak  
sedaz apainduak,  
estandarte-dun ta  
klarinariak,  
buru aundiakin  
saltoka nanuak,  
far eragiteko  
ala jarriak.

Turkuen gisara,  
txinuen moduan,  
musikoen jantzi  
diferenteak,  
dantzan ta kantari  
beren inguruan,  
ala zijoazen  
estudianteak.  
Bi goianti(3) luze  
azaldutzen dira,  
balira bezela  
andre gizonak;  
oso txokatu ta  
aieri begira  
ler far egin zuen  
gure amonak.

Txextuen moduko  
gurdi alegrea,  
ongi jantzitako  
aurrez betea;  
ondoren "Lau erak",  
"Itsas erregea",  
"Txoriyen kabiya"  
berriz bestea.  
Elefandi eder  
errege txinoa,  
galaz estaliya  
bere jargoian;  
jauregi(4) polit bat  
turko errikoa,  
eta beste gauza  
asko segiran.

Pasa ziranean  
amerikatarrak,  
erregiñ eder bat  
aien onduan,

brontze kolorezko  
indiyo gogorak  
zeramazkiyela  
bere kontuan.  
Txalupa bat gero  
banderatxoakin,  
karrozak berriro  
aien urrena,  
ollardia beren  
gañekoarekiñ...  
Nik ez dakit nola  
kontatu dena!

Sei abere gazte  
txit galaz jantzita,  
karroza eder bat  
zebilkitela,  
festako errege  
jargoian jarrita,  
majestade aundiz  
zaramatela.  
Bertako musikak,  
bertako klariñak,  
banderak, loriak  
koskabilloak,  
guziyak ziraden  
ederki egiñak,  
guziyak ziraden  
famatzekoak.

Iltzeko zezenak  
zaldun galaiakiñ  
onak izan ziran  
zezenen plazan,  
eta geroago  
jantzi politakiñ  
baratzagillien  
festa izan zan.

Kontatu biar det  
aditu bezala:  
oraindik ez dira  
amabost egun,  
zispiriyaz batek  
esaten zirala:  
"Zeiñ izan liteke  
aiekiñ lagun!"

Gero arratsian  
millaka argiyak,  
bukatzeko festa  
sardiñarena,  
atabal musikak  
eta kantariyak,  
egite danetan  
famatzen dena;  
zulotik irtenaz  
sua eta garra,  
diabrubak jiran  
ariñ dantzari,  
globoan joaten da  
gure sardiñ zarra,  
ariyo egiñaz  
jende danari.

(Euskal-Erria, 1885)

- (1) *Composición premiada con un objeto de arte en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1884.* (Euskal-Erria-ren oarra.)  
(2) *Formales.* (Id.)  
(3) *Gigantes.* (Id.)  
(4) *Serrallo.* (Id.)

# Petra txardiñ saltzallia

---

Treñerua kaiera  
goizian goiz aldera  
txardiñ preskuarekiñ  
sartzen bada,  
naiz mototsa zintzillik,  
bi saltuan ixillik,  
lendabiziko Petra  
kayian da.  
– Ekatzu baldetxo bat,  
baña ongi betia,  
Martini, nere maitia,  
txestu ontan;  
segiduban kalera  
juan nariyen saltzera,  
esnatubaz daudenak  
oraindik lotan.  
*Txardiñ berriyak,*  
*bizi bizi yak,*  
*txestu ontatik zaizkit juaten;*  
*mokaru goxo preskuagorik*  
*Dukiak ere ez du jaten.*

Ez da ostaturikan  
artzen ez dubenikan  
udako fruta eder  
ontatikan;  
ez det ezagutzen nik  
gustatzen etzaionik  
bakar bat, esateko,  
oraindikan.



Zartayian prejitzen,  
zabal zabal jarriyak,  
txardiñ berri biziya  
masiyakua;  
eta beren mamiya,  
gogorra ta loriya,  
lupiyarena baña  
gozuagua.  
*Txardiñ berriyak...*

Sagardotegiyetan,  
goiz eta artsaldetan,  
an ere txit ederki  
dira jartzen;  
brasa bizi biziya,  
estalirik guziya,  
biatz puntak erriaz  
dira artzen.  
Eta lenaz emanak  
badira bi gatz ale,  
nola ez izan zale  
aietara?  
Prejitubak, erriak,  
zeiñ baña zeñ obiak,  
goxuak dira alde  
denetara.  
*Txardiñ berriyak...*

Ollagor ta eperrak  
dirala txit ederrak  
txiki txikitandik det  
adituba;  
baña mokadu fiña,  
txardiñ bizkar urdiña,  
atze aldetik ondo  
okertuba.

Arranbarrill gañian  
jarritzian erretzen,  
begira irrikitzen  
beregana.  
Ez da nolanaikua,  
alafedetakua,  
Galiziyari kapoitzat  
jaten dana.  
*Txardiñ berriyak...*

Ara goian Benita,  
txeletaka jarrita,  
txokaturikan dago  
farrez lertzen;  
baña begira orri  
koloriak zer gorri  
aitatu detalako  
zaizkan jartzen.  
Orain zubengandikan,  
penaz utzirik dana,  
nere aurrarengana  
nua etxera.  
Pixoiala txuriyak,  
badaukazki bustiyak,  
mudatu ta bularra  
ematera...  
*Txardiñ berriyak...*

(*Euskal-Erria*, 1888.)  
(*Ibaizabal*, 1903-IV-19)

Onako oar au egiten du *Euskal-Erria* aldizkariak olerki oni buruz: "Moldaera au lenbiziko aldiz aurkeztatua izandu zan 1886-ko Abenduan Donostiko Biltoki zarrean Euskal-Itz-jostaldien Batzarreak egin zuen euskal-festan". Doiñua ere badu olerki onek, R. Sarriegi'k asmatua. Nai duanak, *Euskal-Erria* aldizkarian arkitu lezake.

# Jose Maria Iparragirre

---

Adoratzen zaitugu,  
arbola santua.  
*Iparragirre*

*(On Jose Ramirez Piscina-ri donkitua.)*

Zure onran kantari  
asteko antsiyan  
arkitutzen nintzan ni  
aspaldi guziyan.  
Zer pozik oraiñ ere  
izkera eztiyan,  
baneki kantatuko  
nizuke graziyan,  
nola kantatzen duben  
txoriyak sasiyan!

Nola, nola kantatu,  
ai!, biyotz gaixuak,  
itzaliyak badauzka  
antziñako suak?  
Baña zu goititzeko  
botarik izuak,  
Bildubaz Aitor zarren  
itz legun gozuak...(1)  
nola ez kanporatu  
seme argitsuak?

Artzen zendubenean  
eskuban gitarra,  
nork neurtzen zuben zure  
biyotzen indarra?  
Zu izandu zerade  
euskaldun bakarra,  
piztutzen zendubena  
petxuban su-garra,  
zeruraño goitubaz  
euskal izkuntz zarra.

Soñu samur eztiyak,  
gozozko izkera,  
argiratutzen mantxa  
gabeko euskera;  
beti pregoitzen erri  
batetik bestera,  
oiturak ez zitzaten  
botatu lurpera,  
orla, Iparragirre,  
orla izan zera!

Orla kantatu dezu  
frankotan erriyan,  
baserritxoan eta  
zelai ageriyen;  
aingerubak bezela  
txit modu eztiyan,  
orla loretegiyan,  
orrela mendiyen,  
eta arbol ostotsu  
galanten azpiyan.

Entzuten ziran ibai  
garbiyen oñean,  
mendi goitsu atsegiñ  
tantaien gañean;  
izkuntz garbi, aberats,  
samur, ederrean,  
berritutzen zirala  
arkaitz utsunean,(2)  
euskalduna kantari  
asitzen zanean.

Zergatik jaisten ziran  
ixilka piztiyak?  
Zergatik arkumeak  
eta egaztiyak?  
Mendi gañetan zeuden  
txori izutiyak,  
aiñ presaz, aiñ aguro  
leiatzen guztiyak?...  
Entzutiatic zure  
soñu pozgarriyak!

Basoan, soroan ta  
zelai txaboletan,  
zer gogoz entzuten zan  
leku guzietan!  
Eta nola ez maite  
Euskal-erriyetan,  
laztantzen dan bezela  
untza paretetan,  
laztandutzen baziñan  
gure biyotzetan?

Eta gau ixilletan  
landetxo batera  
ateratzen baziñan  
zerbait kantatzera,  
aizetxo gozotsuak  
bultziaz aurrera  
itz gozo garbi (y) aiek  
gure ibarrera,  
zer legun sartzen ziran  
gero biyotzera!

Urretxuko(3) semea  
astian kantatzen,  
zeiñ etzuben poz arrek  
laister txoratutzen?  
Saroietik mendira  
ziran igarotzen,  
gero odoi pisuak  
urratu ta zuzen,  
zeru ederreraño  
ziran allegatzen.

Ala euskal izkuntza  
zeruraturikan,  
arkitzen omen dira  
oraiñ pozturikan;  
argatik aingerubak  
diyote goitikan,  
eztutela kanta nai  
ezer besterikan,  
*Gernikako arbolen*  
kantuba baizikan.

Eta entzunik kantu  
eder goitarrena,  
nola ezta sartuko  
petxuban barrena?  
Au da euskaldunentzat  
soñu ederrena,  
ziñez pake santuba  
eskatzen dubena,  
eta aingerutxoak  
kantatzen dutena.

Zuk illundu dituzu  
lengo kantariyak,  
azpiratu ta laja  
mantuz estaliyak;  
zure izkuntza galai,  
eder ta argiyak,  
zure pentsamentubak,  
zure itz garbiyak,  
nola aztuko ditu  
euskaldun erriyak?

Kantatutzen dituzte  
Euskal-erriyetan,  
Frantziyan, Amerikan,  
leku guztiyetan;  
baita artzaiak ere  
beren txaboletan,  
ugarotarrak(4) berriz  
ontzi ederretan,  
eta nekazariyak  
soro zabaletan.

Nola loriak duten  
intza maitiena,  
nola lur egarriyak  
euri jasarena,  
ala euskaldun denak  
goitzen dituztena  
dira arbol santua  
ta zure izena,  
orla pagatutzeko  
zor bat zizutena.

Zuk merezi bezela,  
gero altxatu zan  
tallua(5) Billarreal  
Urretxuko plazan,  
zu onratziagatik,  
zure alabantzan,  
oroitzeko euskaldun  
argi (y) ura zer zan,  
eta kondairak gero  
ongi gorde dezan.

*(Euskal-Erria, 1888.)*

*(Composición premiada con un alfiler de oro en el certamen literario celebrado por el Ateneo científico y literario de Vitoria. Euskal-Erria-ren oarra.)*

- (1) *Euskal-Erria-k: lagun.*
- (2) *Hueco. (Euskal-Erria-ren oarra)*
- (3) *Urrechu-Villarreal. (Id.)*
- (4) *Navegante. (Id.)*
- (5) *Estatua. (Id)*



# Kazkarabarra

---

*(Nere adiskide Antonio Arzak'i)*

Turmoiaren otsak etzuben artean  
dardaratzen zeru goibelen bea;  
jostatzen zebillen zelaitxo batean  
aur begi ñabar bat gaitzik gabea.

Euritan nastuba oparo jaisten zan  
soñuba egiñaz kazkarabarra;  
guztizko kontentu begira jarri zan  
perlak ziralako begi ñabarra.

- Bai, bai, ala dira -ta aingerutxoak  
bildutzen zituben txit poz aundiyaz,  
aleka, aleka, perla urezkoak  
mantaltxo zuriyan kontuz jarriyaz.

- Zeruko arriyak biltzean nai aña,  
eta apaintzeko gero lepoa,  
Mariatxok duben lepandea(1) baña  
amak egingo dit ederragoa.

Lepotik kolkora jaisten zaizkitala,  
jiran txit poliki jarriya dana,  
esatera nua egiñ dezaitala  
lepande eder bat amatxogana.

Eta modu ontan, bi salto emanaz,  
etxera korrika juan zan segiran,  
gaixoak pozkiroz bidean esanaz:  
– A, bai, zer ederki emango diran!

Uste eder ura; bere perla fiñak  
ikutzerakoan fortuna txarrez,  
ur biurtu eta bere atsegiñak  
galdu ta jarri zan penaz negarrez.

Utsirudiaz ta uskeriz beteta  
gertatzen dana da au geiengan:  
perlak dizdiatzen urrutitik eta  
ura, ura utsa ikututzean!

(*Euskal-Erria*, 1889.)

(1) *Collar*. (Egillearen oarra)

# Arrazoia eta urrea

---

Arrokeriyan arrazoiari  
aunditasuna kendu naiean,  
leiatutzen zan urre jaun ori  
gogorkiro ta seta txarrean.

Inbiriya ta pozoikeriya  
izanik aren izkuntz txar ura,  
erantzun zion: "Adiskidia,  
nai dezunian guazen pisura".

Beste itz gabe, biyak segiran  
laister irtenik gogoz kalera,  
pozkiro aundiz saiatu ziran  
pisu justu bat arkitutzera.

Justiziyaren pisu leiala  
izanik beti justu justua,  
an arrazoia bear bezala,  
an azaldu zan pisuagua.

Baña urreak billaukerian  
erantzun zion setaz etzala  
pisatzallea, aren ustian,  
gutziz justua eta leiala.

Gizon zar zar bat maulez beteta(1)  
eta gañera diru zalea,  
auzoan ura arkitu eta  
ipiñi dute pisatzallea.

Kontatutzen da eman ziyola  
an bakoitzari bere pisua...  
Baña diyote orduan zala  
urra askoz pisuagua.

(*Euskal-Erria*, 1889)

(1) *Euskal-Erria*'k *betea* dio; baiña leenengo eta irugarren lerroak alkarrekin rimatu bear duten ezkerro, *beteta* bear duala dudarik ez da.

# Pedro Mari biursari gozotsuarentzat

---

Dakidalarik, kasikan iya  
ezin sinistu det nik, ai!,  
Aitorren seme biursariyak  
eztubela kantatu nai;  
zerubak zuri euskal izkuntzan  
emanik ainbeste doai,  
Ama Euskara zu entzuteko  
gaisoa or daukazu zai,  
poztu deriyen esan zaiozu:  
“Bai, kantatuko dizut, bai!”.

Esan zaiozu bete-beterik  
petxu leiala su-garrez,  
kanta zaiozu iruki gabe  
Ama maitia negarrez,  
arranoaren egaa moduan  
goititurikan indarrez,  
estali zazu berdin gabeko  
itz gozo garbi ederrez,  
nola zeruba estalitzen dan  
gau garbiyetan izarrez.

Txoriyak bere umearentzat  
eztu ainbeste naitasun,  
nola zuk, Pedro, mantxa gabeko  
lur santuari diyozun;  
saroi tarteko txori egazti  
danak nai zaituzte entzun,  
euskera zarren edertasunak  
nola goititzen dituzun...  
Zuk eztakizu izkuntz arrekin  
zenbat poztutzen gaituzun!

Kantatu zazu saroi berdean,  
kantatu mendi goietan,  
baso beltzean, errekatxoan,  
zelai ta bordatxoetan;  
kantatu zazu ibai ertzean,  
arbol tantaien gañetan,  
usai gozozko baratza loraz  
ederki apainduetan,  
baitare ibar alaitsu eta  
atari garbi aietan.

Zure itz eder eztitsu aiek  
esanaz alako bigun,  
biyotzeraño allegatutzen  
dira eztiro ta legun;  
eztakit zuri zer jaungoikozko  
graziyak sartu zaizkitzun,  
beti oparo argiratzeko  
orrenbeste edertasun,  
Pedro, uste det neurri gabeko  
doaiak ote dituzun.

Ondar txe-txea milizkatuaz  
goititzen dira ur meak,  
goititzen dira nagirik gabe  
pizti ta beren umeak;  
modu berean astindu eta  
kanporaturik nekeak,  
ala gainduko dituzu gure  
izkera eta legeak,  
esanaz zer dan euskal lurra ta  
zer diran bere semeak.

(*Euskal-Erria*, 1891)

\* \* \*

Pedro Mari Otañok bertso auen bidez eman zion erantzuna Iraolaren saillari:

(1892)

**Ordañak**

Beti oitura deran bezela,  
juan dan larunbatian,  
lantegitikan atera eta  
afaltzera bitartian,  
*Lenguxu*-nera juan nintzan ta  
sartu orduko atian,  
*Pakok* sei bertso eman zizkidan(1)  
papertxo txuri batian,  
esanaz: "Ia asmatzen dezun  
zeñek moldatubak diran".

Aiñ griña aundiz gelditu nintzan  
begira paper artara,  
non irakurri nitubeneko  
bost edo sei errenkara.  
erantzun nion: "*Pako*, kantu au  
izugarri ederra da,  
ta nere ustez etzitzakian  
*Sarituak* bestek para;  
nik dakidanik ura bakarrik  
irixten da orretara".

"Asmatu dezu -zion far-irriz-,  
ark berak ipiñi ditu,  
ta badiruri ederragorik  
eziñ leikela aditu;  
or ezagun da nola etzaizkan  
oraindik indarrak aitu,  
bañan txit onak arek jartziaz  
eziñ giñtezke arritu,  
sinisten zaill bai izango zala  
txarrak azaldu balitu".

Askok aitortzen du ez dubela  
euskerak edertasunik,  
ezagutzen ez dakitenentzat  
ezer ez baita gauz onik:  
bañan paper au irakurrita  
zuri esaten dizut nik:  
kantu doaiez betetako au  
bear bezela entzunik,  
ez nuke nere lagun izan nai  
limurtzen ez dan gizonik.

*Sarituaren* muñetan suba  
Musak zuten irazeki,  
ta pentsaerik aundientzat  
badu bear aña toki;  
jakintsu danen gisara egiten  
du bere buruba txiki,  
aiñ maite duben Ama Euskera  
nairik lurretik eraiki,  
biursarien galdezka dator  
ta berak aña nork daki?

Ama Euskera maite dutenak  
zenbait euskaldun onradu  
oraindik ere arkitzen dira,  
ontan suerte ona du;  
bañan aiñ ego motxak dauzkagu,  
eziñ jua gera gora gu:  
zu, *Saritua*, zuaz aurretik  
eta bandera zabaldu,  
nik desio det ibillitzia  
zure atzetik soldadu.



Beste izkuntzik galtzen saiatu  
ez bada Ama Euskera,  
zertako datoz atzerritarrak  
oso zegona austera?  
Pixti gaizto bat balitz bezela  
sartu naian auspera?(2)  
Nola ez gera gu altxatuko  
Amari txutik eustera?  
Izan gaitezen seme leialak  
goitu dediyen osterera.

(*Euskal-Erria*, 1891)

(1) *Pako* au Frantzisko Lopez-Alen (1866-1910) donostiar euskal idazlea da.

(2) Lerro au neurrian motz dago. Gure iritzirako, *naiean* edo *nayian* bearko luke.

# Aurra urian

---

– Ur illaren saltotik,  
nere aur maitia,  
itzuli zaitia;  
ustez goititzen dira  
umiltasun aundiz,  
baña irakitian  
makiña bat aldiz  
aingeru laztanak  
eraman izan ditu,  
zenbait juan diranak!

– Ama, zuk bezelaxen  
ez dezu ikusten  
nautela maitatzen?  
Poz aundi bat sartzen zait  
neri biyotzian,  
laztan gozuak onla  
artu bakoitzian,  
sinisturik ala,  
amatxo, uste det zuk  
emanak dirala.

Zerubaren azpiya  
pixkana-pixkana  
goibeldu zan dana;  
ama itsas ertzean  
laguntzen zebillen  
bere ume ederra  
salbatu zeriyeu,  
zerura begiyak  
altxatubaz negarrez  
malkotan bustiyak.

Gero itsasua zan  
arkaitz gogorrian  
austen indarrian;  
orro asarrezkuan  
goititurik ala,  
ikara zabalduz  
naskidatzen zala,  
legoyen modura  
an atzapartu zuben  
ume eder ura.

Ala, idiki zizkan  
aurrari bideak  
itsas traidoreak;  
alare egiazki  
poz beteko etzan  
amaren esanera  
jarri izan bazan  
aur on bat bezela;  
zerubak kastigatu  
nai zuben bestela.

*(El thun thun, 1894-IX-2.)*

# Alabaren naitasuna

---

(Dama Rosario Artola izkribatzalle argiyari donkitua.)

Munduan bada doakaberik  
ganbara aztu batian, . . .  
andre triste bat gaitz txarrak jua  
oi gogorraren gañian  
arkitutzen zan, mugira gabe  
ezin sufritu añian;  
alaba on bat negar malkotan  
ama maitien oñian,  
laztan gozoak ematen zizkan  
besterikan eziñian.

– Nere amatxo pozkida bedi;  
Jaunak zeru altutikan  
sufrirentuen proga gogor bat  
guri bigaldugatikan,  
ama, ez gaitu utziko iñoiz  
bere eskuetatikan;  
eska zaiogun fede aundiya  
berari biyotzetikan,  
ona da eta lagun egingo  
digu, amatxo, goitikan.

Zerk penatzen du, ama lazтана?  
Zerk penatzen du orrela?  
Ez du ikusten lagundutzeko  
aldamenian naguela?  
Mundu onetan badaki ezer  
desiatzen ez detala,  
nere izate, nere indarrak  
beorrentzako dirala,  
nik ontasunez estaliko det  
aingerutxuak bezala.

Zeruetara nola goititzen  
diran basotik usuak,  
ama, nik ere ala jasorik  
biyotza eta besuak,  
Jaungoikoari egingo dizkat  
erregu baliyosuak,  
nere amari bigaldutzeko  
amets paketsu gozuak,  
aur inozente ederren gisa  
lo egiñ dezan gaisuak.

Amak zispiraz ezkutatuaz  
begi malkotan betiak,  
ziyon: "Zer biyotz aundiya duben  
nere alaba maitiak!  
Baliyosuak dirade zure  
ontasun ta birtutiak,  
zuretzat emen zabaltzen asi  
dira zeruko atiak...".  
Au esan eta biyak negarrez  
gelditu ziran tristiak.

Nola txoriyak egoten diran  
bere umien kontuan,  
egunaz, gabaz, ordu danetan  
ama eriyen onduan,  
biyotz aundiko aur goitandia  
fedebiziyan zeguan;  
ala birtute baliyosuak  
dituztenari munduan,  
Jaunak nekia bedeinkatuta  
saritzen dira zeruan.

(*El thun thun*, 1894-IX-23)

# Pakearen ontasunak

## Pakea da zerua

---

(Aipamen onragarria Oiartzunen irabazitako moldaera.)

### I

Eta gudatzen dirade nola  
leoi zauritu mintsuak,  
dana guziya kiskaldu naian  
koaje biziz sutuak,  
mendi gañetan, bordan, zelaian  
utzirik odol putzuak,  
danak ausardiz jazar lekura  
elkarren kontra, itsuak...  
Españiako semeak dira  
orlako koajetsuak.

Nola txingarrak sututzen duen  
itxekitzean argaia,  
zanja zuloan alatsu batek  
bestea urratu naia,  
burniz bota du bere oñetan  
izan dubenean gaia,  
ubeltasunak eta odolak  
ezkutatua etsaia,  
ai!, ezagutu duben artean  
zala beraren anaia.

Egite triste arri begira  
arpegiya estalirik,  
eta gerraren izen mintsua  
izuz madarikaturik,  
penak aiñ gogor, aiñ indarrean  
eztu zatitu biyotzik;  
lenaz jazarran itxumendua,  
oraiñ eziñ egiñ itzik,  
anaia laja zuen ezkeru  
zanja zuloan illotzik!

## II

Udaberriko aizetxo bigun  
mintsuen sendatzallea,  
pozkiroz bizi diraden txori  
librien laguntzallea,  
eman zadazu kanta dezadan,  
ekatzu argi bidea;  
goitu dezadan eskatzen dizut  
anima pozez betea,  
azaldutzeko zer ederra dan  
miragarrizko pakea.

Nik baneukazki aita lenenen  
izkuntza gozo legunak,  
nik baneukazki euskal jakintsu  
argitsu aiek lagunak,  
kantuz goitutzen arrats luzeak,  
kantuz goitutzen egunak  
nik igaroko nituzke pozez  
autsiyaz odei illunak,  
mundu guzira zabaldutzeko  
dituzun aunditasunak!

Iparraldera igeska joango  
lirake odei nabarrak,  
ez lirake, ez, kontra jarriko  
turmoi ta kazkarabarrak;  
zu illuntzeko ez dira diña  
dana guziyen indarrak,  
ez dira diña arras beltzeko  
aize gogorren jazarrak,  
zeren ipintzen zaituen diz diz  
zeru altuko izarrak.

Arrano abill begi zorrotzen  
modura egaaturikan,  
zeruetara igarotuz  
odeiak urraturikan,  
nork lezakean kantatu zure  
aunditasunak andikan,  
eguzkiyaren argi bizira  
ojuaz biyotzetikan:  
“Ezer ez dala pakea beziñ,  
ezer, ederragorikan!”.

Zer da lurrean konparatzeko  
argiya beziñ oberik?  
Zer da zeruan eguzkiyaren  
musua beziñ ederrik?  
Biyak munduan aiñ pozgarriyak,  
aiñ goitandiyak izanik,  
bedeinkatzen dan pake santuen  
azkengabeko doairik,  
ez dakit biyak berdiñdutzeko  
diña diraden oraindik.



Maite zaituzte pozkiro aundiz  
artzaiak mendi goietan,  
maite zaituzte egaztitxoak  
borda ta baso beltzetan,  
maite zaituzte iturritxoak,  
maite saroi, zelaietan,  
txabolan eta baserritxoan,  
ibar txuri garbietetan,  
itsaso zabal urdiñian da  
diraden leku danetan.

Pake santua, zeru goietan,  
tronpeta luzien bozaz,  
mirarituak uzten dituzu  
zure egite bakoitzaz;  
laño txuriyak itzultzen dira  
ariñ ingurutik lotsaz,  
eta gizonak kontatzen dute  
hurra jartzen dala pozaz,  
nekazariya ikusitzean  
porrokatutzen bostortzaz.

Kiskaltzen ditu gerra gogorrak,  
soroak eta basoak,  
izuz beterik eskasten dira  
nekazariyen besoak,  
eguzkiya're penaturikan  
illundutzen du lausoak;  
bazter guziyak naiz ala egon  
porrokatuak, sutuak,  
altxatzen ditu denak aingeru  
pakezkuen itz gozuak.

Ama on batek gerratik jiran  
bere semea etxean,  
egongo zana berri bat gabe  
guztiz denbora luzean,  
Jaungoikoari milla graziyak  
malkoz eman ondorean,  
eta semea ikusirikan  
bere biyotzen aurrean,  
zer pozez amak laztantzen duen  
pakearen izenean!

Ezta entzuten mendi gañetan  
gudariaren ojurik,  
ezta entzuten dunbots otsikan,  
ezta balaren txisturik;  
pakeak dauzka saroi zelaiak  
lora politez jantzirik,  
errekatoak far antzan doaz  
ariñ, kontentuz beterik...  
Guziya dago galaiturikan,  
guziyak daude pozturik.

Orregatikan ojukatzen da  
gogoz zeruetatikan  
zantzo irrintzi pozgarritsuan  
mendiyen tontorretikan,  
artzai paketsu gaitzik gabea  
kontentu txabolatikan,  
eta nola ez otsa erori  
atera biyotzetikan,  
munduan ezer ez baldiñ bada  
zoragarriyagorikan?

Mendi gañean agertutzean  
eguzki zerukoi ori,  
txori txikiyak osto azpitik  
asitzen dira kantari,  
agur egiñaz egun berriko  
aizetxo pozgarriari,  
baratz loratsu galaiari ta  
menda inozenteari,  
erriyo, ibai geldiyari ta  
pake maitagarriari.

Pakea nai du itsas gizonak,  
pakea nekazariyak,  
pakea gerra-zaleak eta  
beraren agintariyak;  
pakea nai du almentsuak ta  
pakea eskalariyak,  
mendiyetako pizti gaiztoak,  
txori jostallu txikiyak,  
goitandi eta menderatuak,  
pakea mundu guziyak.

Zu gabetanik argitutzen du  
eguna ere tristea,  
zu gabetanik ezta ikusten  
txoriya pozez betea;  
zu gabetanik atsekabeak,  
zu gabetanik nekea,  
zoriona txit laburra eta  
zorigaiztoa luzea,  
zu gabetanik mingarriya da  
munduan bizitutzea.

Zuregatikan kantatutzen du  
zugaztiyetan txoriyak,  
zuregatikan uriztatutzen  
dirade lora garbiyak,  
indartzen dira arbol tantaiak,  
baratzak eta saroiak:  
zu onratzeko kantatutzen du  
itz neurritzalle goitiyak;  
errekatoak, ibai zabalak  
eta iturri txikiyak.

Zure izena bedeinkatzen da  
gurutzearen oñean,  
zure izena pregoitzen dute  
itsas zabal urdiñean,  
atsegindurik ipindutzen da  
lekurik altuenean,  
aiñ maiterikan, aiñ otseztirik  
nik eziñ esan añean,  
mundurik mundu damurik gabe  
gauza guziyen gañean.

Aiñ da ederra! Zeñek eztu nai  
egon beraren urrean,  
nola txoriyak egoten diran  
kabi txikiyen aurrean?  
Ala goitutzen dute kantetan  
kalian ta ibarrean,  
eta pozturik kantatzen dute  
fedetsu ta indarrean:  
“Zeru altuan Jaungoikoa ta  
pake santua lurean!”.

Bertso-papera, *Imp. de V. Iraola* moldiztegian argitara emana  
eta Oiartzungo Jose Joakin Mitxelena bertsolaria zanaren  
eskuetatik jasoa.

(1897, *Euskal-festak Oyarzunen, Oroimengarria.*)

# Astua gosiak

---

– “Nere astuagatik,  
Txoko, zer deritzak?  
Kostillak bat banaka  
kontatutzen zizkat:  
kiskurrak nai ainbeste  
eramaten zaizkak,  
baña jateko nola  
daukazkiyen kezak...”  
– “Antioju berdiak  
jantzi biar dizkak!

Ori egiten badek  
–diyo erdi farrez–,  
aguro jarriko dek  
lori ta indarrez;  
nola berde zalia  
astua dan berez,  
eta ganbel guziya  
ikustian berdez,  
tragatuko dik ale  
ona beziñ errez.

Astegun, igandian  
ta erozeiñ jaitan,  
goizian, artsaldian,  
nai dekan garaitan,  
tripa beteko dik non  
balitzake zaitan, (sic)  
gero jan ondorian  
jartzen bada gaitan,  
ikusiko dek nola  
gizenduko zaikan”.

Burlaz antiojuak  
orrela jartzia  
kupirikan gabe da  
astutzat artzia;  
eztet esan nai dala  
faltsiyan saltzia,  
baña aiñ farragarri  
erabillitzia,  
ori da astuari  
kreituba galtzia.

Nola on puska bat dan  
txit askok dakiten,  
etzan onen odolik  
jarri irakiten;  
asto gizarajua  
orla zebilkiten,  
Txoko eta nausiya  
izanik bi kirten,  
etzitzaion kontuba  
oni ondo irten.

Kiskurrak etziyozkan  
jarri urrutira,  
baña astuak laister  
andik erretira;  
antioju gañetik  
jarri zan begira,  
eta emanik gero  
ganbelari jira  
ala diyo: "Kiskurrak?  
Nausiyentzat dira!"

*(La Voz de Guipúzcoa, 1897-X-29.)*

# Loiolakua

---

Zu ainbesteko damarik eztu  
oraindik emen Loiolak,  
galai gaztiak txuliatutzen  
ederki daki potxolak;  
eztu zuk aña patxandi loraz  
apaindutzen dan arbolak,  
zuk aña dizdiz eztu egiten  
botiñ berriyen txarolak,  
eztu ainbeste argi ematen  
kontzokupeko farolak.

Burutik bera bizkar gañetik  
erortzen dan albiñua,  
dezu bestek ez bezelakua  
orpuan berañokua;  
egon liteke nai dan pisua  
ero nagitsu lañua,  
urratu eta azalduko da  
eguzkiyen errañua,  
ikusitzera loiolatarren  
txirikordazko moñua.

Zure begiyak beziñ ederrik  
zer da Euskal-Erriyan, zer?  
Zerebait izan liteke baña  
eztakit ote dan ezer:  
beñ ero beste beren izena  
entzun izandu det oker,  
aiñ dira zuri eder galantak  
esan lezateke laister:  
oiek ez dira begi zabalak,  
oiek dirade bi plater!

Nor ezta gozoz gogoratutzen  
zure baserri-etxiaz,  
eta pasatzen erriyotxua  
gonaren puntta altxiaz?  
Zuretzat dago pasabidia  
egiña ondar txe-txiaz,  
eta atrebi balitzake bat  
ondar-bidea txartziaz,  
ni ez nitzake aseko ura  
buruz ibaian sartziaz.

Zu bezelako karta ederrak  
izatera, nork eman mus?  
Galai bat bada korkoien gisa  
jõ nai zinduzkena amuz;  
maiorazkua nola dan bera  
etzera egongo damuz,  
berak koroituko zaitu loraz  
txautxabaz eta erramuz;  
nola deitzen dan galdetzen nazu?  
Ez al dakizu? *Oremus.*

*(La Voz de Guipúzcoa, 1897-XII-12.)*



# Ama baten negarra

---

*(Larogei pezetako sari bat eta bitezarra  
Zumarraga-n irabazitako moldaera.)*

Izar laztana, ume ederra,  
biotz nereko oroitz tristea,  
nere atsegiñ zoragarria,  
begietako argi nerea!  
Asnas laguntza indarazute,  
arkitutzen naiz penaz betea,  
gau soseguzko ixillan ere  
eztet billatzen gozo pakea.  
Sasilarretik leiza etzera  
itzulirikan, bakardadea  
arkitu nai det, baña izuaz  
presaz uzten det bakar bidea.  
Non dira nere amets gozoak,  
utsirudiak, nere ustea;  
non da kolkuen erdi-erdian  
gordetzen nuen izar lorea,  
biotzetikan kargak kendu ta  
uzten zirana gozabetea?  
Zer urrutira igesi diran!  
Odoi pisuak dauzka gordea;  
itzali zaizkit zorion danak,  
il zan ezkerro nere maitea.  
Ordu illunak, ordu samiñak!  
Dena tristura, dena nekea;  
zorigaiztuak kupira gabe  
mendean naukan doakabea.  
Zerengatikan zure amaren  
besuetatik, nere umea,  
iges joan zera, zu izanikan  
bere penaren sendatzallea?

Zu ziñan arbol osto azpiko  
txori txikien esnatzallea,  
arrats illuna bultzatu eta  
egun berrien argitzallea,  
eta emanaz laztan gozoak  
zure amaren txoratzallea.

\* \* \*

Saroi berdeko landare gazte  
gelditzen dana ibar tristean,  
itsatsitzeko ez baldiñ badu  
laguntzallerik jaio lurrian,  
arkituko da ikaratua  
eta bakarrik bere bidean!

A, galdu zaitut beti betiko  
nai zindutana begiz aurrean!...  
Zure jostallu politikak ere  
gelan nai dute egon gordean.

Zabaltzen ditut egi eriak,  
zabaltzen ditut leku denean,  
zerengatikan gorde nai zaitut  
ementxen beti, magal nerean,  
emateko bat, bi, zazpi laztan  
arpegi txuri fiñ ederrian,  
nola ematen nizkizun milla  
besuan artzen zindudanean,  
borratu gabe damazkizunak  
zure masaltxo atsegiñean.

A, il zerade! Bai, il zerade,  
ama utzirik bakardadean,  
zure kontuan egoten zana  
gozoz egunaz, pozaz gaubean.

Zu ziñan nere asnas ezti,  
zu ziñan nere aldamenean  
eguzki berri dizdizaria  
jaikitzen zana pozaz goizean,  
banatutzera alaitasuna  
zure amaren biotz aulean!

Gaur naigabeak menderatuta  
senti det pena txit barrenean,  
amari agur bat egiñ gabe  
magaletik joan zeradenean,  
aztutzen eztan azken agurra  
izarrak galtzen diradenean!

\* \* \*

Begira nola eguzkia're  
azaldutzen dan illun illuna,  
begira nola gogo gaberik  
argitutzen dan triste eguna;  
txoriak ere ixilik daude  
galdurik lengo, ai!, poztasuna,  
saroi berdean ezta ikusten  
bere lengoko alaitasuna;  
lorategian ezta zabaltzen  
usai gozozko likurtasuna,  
ezta pasatzen osto tartetik  
laztantzen zuen aize biguna,  
iturri txiki pill-pill-laria  
atsegindurik uzten ziguna.

Tristerik dago baserritxoan  
len jostatzen zan ume txukuna,  
zelai zabalak, mendi tantaiak  
galdurik beren edertasuna,  
guzia dago igar, legorra,  
guzian dago eritasuna,  
eraman ziran ezkeroztikan  
Jaunak kolkoko kutun kutuna.

\* \* \*

Negar malkotan oroitutzen naiz  
bere andare polit txikiaz,  
gona kizkurtu urdiñ urdiña,  
zapatatxuak, mantal txuriaz;

seaskatxoan laztandu eta  
txit amorioz kontuz utziaz,  
ille ugari urreztatua  
bildurik bere esku txikiaz,  
kantatzen zion *lo lo* gaixuak  
txit txukun txukun, ai!, estaliaz,  
esanaz: “*Ya ya* emango dizut,  
asten bazera negar antsiatz”.

\* \* \*

Eztet entzungo bere iztxoa  
asma eziñik doi doi esana,  
eziñ autsiatz gaxoak farrez  
adierazo asten zirana;  
ez da gordeko *kirik* egiñaz  
korri txikian pozturik dana,  
*bule* deituaz ate txokotik  
ixil gordetzen, ai!, zitzaidana,  
gero magalan loak artuta  
maitatzen nuen amets laztana.  
Txoko txokuan bilduta dago  
ari egiten pestak zizkana,  
gonatxotikan tiratutzera  
nere aingeru politagana  
txakur txikia, *kau kau* egiñaz,  
jostatutzera etortzen zana.

\* \* \*

Oroitzak milla berritzen dizkit  
nere doaiak, nere uxuak,  
pozgarri abek dauzkat aurrean  
guziak berak utzitakuak.  
Emen *papella*, liburu txikia,  
gurutzetxua, ta or santuak,  
silla polita, bere basua,  
amona Piak emandakuak.

Gona, gorontza, talma, mantala,  
zapata txiki, galtzerditxuak,  
or errenkaran danak txintxilik  
berak jarriak, berak jasua.

Beregatikan galdetzen naute  
diruditela ikaratuak,  
ta nik erantzun orde zerrura  
diot jasorik nagi besuak:

“Jauna! Zergatik eman zeniran,  
ateratzeko zure eskuak?...”

Umezurtz pobre jabegabeak,  
otzak ikaraz eta mintsuak,  
limosna billa deituko dute  
ate onduan *kax kax* gaixuak;  
ematen zizkan ogi koxkorak,  
ematen zizkan laztan musuak,  
bere far-irri maitagarrian  
zeruratu zan aingerutxuak.

Zer dira pena mingarriago?  
Zer dirade, zer, aundiaguak?  
Dira petxuak jaso eziñak,  
dira biotza urratzekuak.

Bukatu dira ordu ederrak!  
Menderatu nau antsi estuak,  
berri onaren mandatariak  
gelditu zaizkit ezereztuak...

Baña alare esperantz onak  
txukatzen dizkit negar malkuak,  
samintasunak kanporatuta  
neregantzeko indar galduak,  
zeru altutik lagunduko dit  
aingeru eder biotzekuak.

(*Euskal festak Zumarraga-n, 1899, Oroimengarria*)  
(*Ibaizabal, 1903, Ilbelta, 11.*)

# Zardin saltzallia

## Donostian

---

Gona barrena petralik gabe  
gerrian graziz bilduta,  
txesto zardiña gizen preskua  
beso azpian artuta,  
neska motz eder begi zabala  
artuaz kale guzia,  
lotsatu gabe lasai deitzen du:  
“Txardiña bizi bizia!”.

Beata neskazar moduko bat  
Apaiz kalian barrena,  
mantillapian ezkutatuaz  
arpegirikan geiena...

– Zenbatian da?

– Ez diot aitzen.

– Zenbatian da dozena?

– Zortzi kuartuan.

– Laubian balitz!

– Txokatutzen zait galdia!

Ostuba dala pentsatzen al du  
amar peztako baldia?

– Exurrik gabe zabalduzko  
pazientzia!...

– Begira:

kirieleison ta induljentziak  
orla irabazten dira.

Au da txardiña *de rechupete!*

Eztu onen ederrik jan!

Begira beza atze aldia  
nola okertuba daukan!

Arranbarrillen gañian gero  
ondo erretzen baditu,  
biatzak eta arranbarrilla  
denak txupatuko ditu.

- Frexkuak dira?

- Frexkuak diran?

Ikusi, lo ezpadago!

Ai! Obe luke lau kuarto baña  
orren frexkua balego!

- Bai, baña...

- Zer bai eta zer *cuerno!*

- Jesus, Maria!

- Bagera?

Auxen da atso infernukua!

- Auxen da neska bandera!

Or pasa danak eman nai ziran  
pozik bost kuartuan neri!

- Or pasatu dan abo zabala  
*es que ez naiz ordian ni!*

- Tori bost kuarto eta ekatzu  
emen bilduta eskura.

- Etzait txokatzen, alafedia,  
gutxi beorren freskura!

- Au orgullosa!

- Nezakelako!

- El al dirazu eman nai?

- Andre xerora! Beorrek eztu  
txardiñ biarrrik, aja jai!

- Naizu sei kuarto?

- Ez; beorrentzat

izango dira obiak...

- Zer gero?

- Zer dan galdetutzen du?

Aza olio gabiak!

- Neska tarazka!

- Galdu azi nau

iru dozena saltzia!

(Merezi luke txardiñ txestua  
burutik bera sartzia!)  
Eta onela marmarizaka  
bilduaz lengo grazia,  
kalian gora dijua deika:  
– Txardiña bizi bizia!

(*La Vasconia*, 1901-IV-10)  
(*Ibaizabal*, 1902, Irailla, 21.)



# Arrantzalea

---

*(Airea: Intxauspeko alaba dendaria.)*

Nere ume, ume zoragarriya,  
jatxi zaite itsas bazterrera,  
biyotz bigun eriyen kantatxoak  
ixiltasun ontan entzutera.

Bateltxoan biyak eseri eta  
naitasunez bakar-bakarrean,  
nere antsi amoriyoz beteak  
sartutzeko zure biyotzean.

Gau illunak zerua estaltzen du,  
itsasoak ez dauka mugirik,  
aize bigun epelak soseguan,  
dana dago, dana zori-ongiz.

Itsasora irteten naizenean  
goizean goiz nere bateltxoan,  
beti zaitut imajiña bezela  
eramaten gordia kolkoan.

Biyak joango gera goizaldi batez  
bogatuaz itsas barrenera,  
aize ariñ gozotsuen soñuan  
naitasunen penak kantatzera.

Zuretzako arrapatuko ditut  
milla arrai polit politenak,  
gero aiek oartu ondorean  
zutaz dira gustatuko denak.

Jakiñ zazun amoriyua nola  
senti detan biyotz xamurrean,  
eskeñiko dizut juramentua  
itsas eder urdiñ zabalean.

Bateltxoan joango gera urruti  
baga kiskur urdiñak pasiaz,  
altxatzen dan afar arro zuriya  
agurtu ta atzian lajiaz.

Ur aundiyak etzaitu izutuko,  
ez eta're aize indartsuak;  
ikustean zure begi zabalak  
biurtuko dira gozotsuak.

Erregintzat otsandetuko zaitu  
ugumarrak(1) kantu eztitsuan,  
itsastarrak zerura goitituaz  
zorionez pozezko ojuan.

Atozkit, ai!, atozkit batelera,  
atoz, arren, atoz bereala;  
illargiya dizdiatzen ari da  
illun zeguen itsaso zabala.

Aize bigun onak bultzatzen ditu  
bagatxoak nere batelera;  
atoz laister, ume zoragarriya,  
biyotz ill au konsolatutzera!

(Ibaizabal, 1902, Otsailla, 23.)

(1) *Sirenas*. (Egillearen oarra.)

# Kejak

---

Ni naiz munduan doakabea!  
Bestiak dira fortunosuak;  
petxu minduan bere zuladak  
altxatzen dizkit baba suzkuak.  
Entzun nazazu, ume ederra:  
gorputza daukat beti izuak,  
laztandu arren gau guzietan  
oi-lagun ariñ kariñosuak,  
a, zer ederki pagatzen duben  
odol argaldu near gaxuak!  
Ala oietik kanporatutzen  
ditut koaje aundiz besuak;  
jiratutzen naiz sosegu billa,  
baña dirade alper saiua.  
Asnas estua, gorputz eria,  
eziñ egona, sufrimentuak,  
bost pena triste pasatzen ditu  
gorputz anpulu gizarajuak!  
Bukatu ziran betiko nere  
lo soseguzko eder gozuak;  
esna pasatzen ditut, izarra  
ernegatutzen, arrats osuak...  
– Zer dezu, bada, lua galtzeko?  
– Zer izango det! Arkakosuak!

*(Ibaizabal, 1902-III-9.)*

# Nexka eta perlak

---

Turmoi orruak eztu artean  
dardaratutzen zeruen bea;  
intzak goizean eztu utxaldu  
uriztatutzen duen lorea.  
Baratz berdean jostatutzen da  
nexka polit bat pozez betea,  
arbol orrian kantatzen duen  
karnaba beziñ inozentea,  
eta mendaren gisa berean  
izpirik ere gaitzik gabea.

Odoi illunak nagitsu datoz;  
mendi oñean trinko lañuak,  
negu beltzeko arrats modura,  
ziraden euri jasa siñuak;  
ezkutatuak izuz bezela  
eguzkiaren argi-kiñuak,  
eroritzen zan kazkarabarra;  
arretatzen du bere soñuak,  
esanaz “Perlak, perlak dirade”  
biotz oneko aur moñoñuak.

“Ala dirade” aingerutxoak  
berritik zion txit poz aundian,  
amak txoriak nola dituben  
lumaz epeltzen bere kabian.  
Biltzen asi zan –doakabea!–,  
atsegindurik lora tokian,  
urezko perlak kontuz aleka  
gozoz arturik esku txikian,  
eta txit moduz jartzen zituen  
bere mantaltxo txuri txurian.

Zeruko arri urtsuak biltzen  
aingeru eder biotzekoa,  
mantal garbitik erori gabe,  
ai!, gaixua zan ikustekoa.  
“Klaritak badu lepandetxo(1) bat  
-zion- amonak emandakoa;  
baña nik perlak eramatean  
apaindutzeko nere lepoa,  
amak egingo dit Klaritena  
baña oraindik ederragoa.

Lepuan iru jira eman da  
dizdiz egiñaz ederki dana,  
jarriko det soiñ txuri-urdiña  
amak jaietan jazten dirana”.  
Pozez onela itxumendua  
arkitutzen zan ume laztana,  
txoraturikan anka puntetan  
aiñ egiazki jolasten zana...  
Fedetsu zion: “Perlak jartzera  
laisterka nua amatxogana”.

Modu onetaz pauso ariñez  
etxera dua pozez segiran;  
oiñ txikiakin kasikan eztu  
lurrik ikutzen bere mugiran.  
“Allegatzian jarriko dizkit  
amatxok perlak lepuen jiran;  
eta zer ondo andik kolkora,  
zer graziz jatxi bear zaizkidan!  
Eta Klaritak ikusitzean  
zer ondamura artuko diran!”

Uste zoroa! Perla fiñ aiek  
alaiturik aur begi zabala,  
inozenteak sinisturikan  
benetakoak zion zirala;  
biatz puntakiñ ikutu ditu  
zoratu naian, ta bereala  
ur biurtuak gelditu zaizka;  
eta poz denak galdurik ala,  
amari deika abiatu zan  
negar malkoak zeriozkala.

Utsirudiaz onla beteak  
zenbait ibiltzen geradenean,  
mundu negarti triste onetan  
au gertatutzen da geienean:  
gauza aundiak, kabi eziña,  
arrotasuna, goitu naiean;  
perlaren gisa urrutitikan  
dizdizka eta, inguratzean,  
perla fiñ aiek gelditzen dira  
ura, ur utsa, ikututzean.

(Ibaizabal, 1902, Garagarrilla 8.)

(1) *Collar*. (Egillearen oarra.)

# Lore lotsati bati

---

Usai gozozko bioletaren  
moduan belar berdian  
ezkutatua, nola xanko me  
txepetx ariña larrian,  
goititu eta zabal zaitia  
lora guzien aurrian;  
ez dezu orla ondo ematen  
lotsaz bezela gordian...  
Orra, orixe nai nuke baña  
berak eztu nai ordian!

Altxa zaitia, eder liraña,  
ez al dezu nai txukatu?  
Atoz, lurriña gozoz emanaz,  
etzaitiala txokotu;  
eguzki suak ez dizkizu nai  
intza malkuak txukatu,  
eztu nai erle mutur txorrotxak  
zure zumua txupatu...  
Krabeliñari etzitzaioten  
orixe gutxi txokatu.

Lore urdiñak keja dirade  
etzaituztela ikusten,  
gaitzik gabeko inozentiak  
zenbat maitatzen zaituzten!  
Zuk badakizu lora biotzak  
zeren samurrak dituzten,  
berak bezela maitatutzia  
gaxuak nola nai duten,  
eztakizu, ez, amoriua  
zenbateraño dizuten.

Zure ondoren etorria naiz  
osto saretu azpira,  
lore gañetik txorien kantak  
entzuten diran tokira,  
bada loratxo gaitzik gabiak  
txorien lagunak dira;  
ala umiak amari deika  
*txioka* asten badira,  
loriak ere txorien gisa  
penaz ixiltzen ez dira.

Iturritxuak xegaran datoz  
menditik bide luzian,  
lartan gozuak eskeñitzera  
zure kopeta otzian;  
sarrietikan igarotuz  
laisterka baso beltzian,  
astindurikan egal urezko  
presko ariñak bidian,  
berritik galtzen diraden arte  
osto itzaltsu berdian.

Lora, txoriak, iturritxuak  
malko uretan asiak,  
zure kolkora ez dira sartu  
lagunaren oñaziak;  
nola diraden kupigarriak  
asnas zispira luziak,  
nik eztakit zer esango zuben  
illun aurreko aiziak,  
zure gañetik murmur otsian  
lartandu gabe pasiak.



Merezi dezun eztakit baña  
maite zaituzte alare,  
zumo aundiko kolko garbia  
orren zekena dala're;  
zu ikustera lila, jazmiñak,  
atzotik emen dirade,  
eta, ail, zure sentimentuak  
xamurrak ez badirade,  
damu zaitia edo bestela  
biotz gabia zerade.

Ixildu ziran; errekatxuak  
saltatu nai zuten gora,  
amoriozko laztan gozuak  
nonbait bilduaz gogora;  
banandu ziran penaz betiak  
berak jakin gabe nora,  
illun lajarik esker gaiztoko  
maite-maite zuten lora;  
ala eztaki iñork oraindik  
zer gertatu zan gerora.

(Ibaizabal, 1902, uztailla, 20.)

# Nere kabien oñean

(Don Ramon Gelbenzu-ri ordañetan donkitua.)

Penaz beterik, urte askoren  
buruan, emanaz jira,  
intxaur orritsu utzi argalen  
oñetik nago begira  
nere betiko baserritxora,  
ni jaio nintzan kabira.  
Begiratzen det bakardadezko  
baserri txiki txurira,  
ariztegitik beko bordara,  
zelaietik atarira,  
mastegi ale gizen-gizenak  
sortutzen ziran tokira,  
josta zitezen ipar ariñak  
emanaz aize mugira,  
leio ausitik goititzen zala  
txorien bizitegira...  
Orain... a!, orain zer trukaera!  
Guziak bukatu dira!  
Ama nereza ezta azaltzen  
goiko leiatill txikira,  
ezta ikusten inoiz bezela  
egun berrien argira,  
goiz eguzkiak epeltasuna  
bigalduaz arpegira;  
bakarrik txori eziñ egonak  
dabiltza jira ta bira,  
pareta zar-zar pitzatutikan  
tellatuaren azpira.  
Non da kantari irteten zana  
Artegiko iturrira,  
jasuaz gona txuri urdiñen  
beko mutturra gerrira,  
irtenaz txori pintarratuak  
bide txigorren erdira,

alkarren leian, pozez txortxorka,  
ume aren ibillira?  
Lur abetatik iges nai nuke  
mendi goiti urrutira,  
baña biotzak jiratutzen nau  
jaiotetxe baserrira!...  
Eta nola ez artu etxe xar  
pitzatuari kupira,  
untzak bideak itxi badizkit  
amaren gela garbira?...  
O!, malko samiñ biotzekuak  
nola zatozten begira!

\* \* \*

Igar ustelak arboltegiak,  
lenago alai berdeak,  
lokatza etxe atarian ta  
galduak txigor bideak,  
aizerrotaren beso luzeak  
ausi ta joak lur beak;  
lurrak legorrak, egarrituak,  
bostortzak landu gabeak;  
iges jun dira izuz bezela  
ginga, marrubi jaleak,(1)  
mokoz jotzera etortzen ziran  
txori bandada luzeak.  
Baratz belarra segak jo gabe,  
arras galduak loreak,  
intzak ez ditu dizdiatuko  
eguzkitan koloreak;  
usai gozozko biolet aiek  
txokuan lotsaz gordeak,  
beren lekuan belar, osiñak  
eta lerdeka bareak...  
Dana tristura, samintasuna,  
pena ta bakardadeak!

\* \* \*

Bukatu dira ollar arrotu  
agintarien kantuak,  
oietik ariñ salta aziaz  
goizeko kukurrukuak;  
beeka larrean amaren deian  
arkume txiki minduak,  
mendi gañeko artzai gaztien  
gogozko txiruliruak,  
maiatz loratu atsegiñean  
kantatzen zuten kukuak,  
eta azkenik, odoiak joak,  
zeruko urdiñ puruak.

\* \* \*

Etxe maitea! Zu izan ziñan,  
gazte gaztea nintzala,  
zorioneko nere kabia,  
nere betiko itzala!  
Ikusitzen det purrukatua  
lengo antzik ez daukala.  
Gogoratzen naiz negu beltzean  
sukalde txoko epela,  
nere aitona gizon prestua  
albotik beti nuela,  
Jaungoikoaren izen santua  
ezpaiñ mietan zubela,  
nere kolkuan gelditzen zana  
josia zirudiela.  
Zerk biltzen dizkit pentsamentura  
oroitz tristeak onela,  
beraren kargak jaso eziñik  
sufriazitzen nautela?  
Nere seaska piñuzko xarra,  
munduratu nintzan gela  
beti alai, zeru zabala  
naiz egon nabar goibela.

Begiratzeko nere niniak  
illuntzen dira berela,  
eta malkuak ixurtzen zaizkit  
ume bat banitz bezela!

\* \* \*

Entzun orduko soñu goiztarra  
kanpantxo txikiarenak,  
erantzuera "Agur Maria"  
nere ama onarenak,  
zeruetara erregutuaz,  
mundutar utsaren penak,  
fedebizian kontatzen ziran  
milla sufritzen zeudenak.  
Ez nezazkike aztu sekula  
nik aitaren oroimenak,  
kanpo lanetik etxeratuta  
gozozko laztan arenak,  
lan izerdia sekatu gabe  
ematen zizkiranenak,  
dira petxuak ill arteraño  
ondo gordeak daudenak,  
kutxan urria gordetzen duben  
bezela gizon zekenak.  
Ama maitea! Aita nerea!  
Jolas anai arrebenak!  
Ez dit biotza pozak jasoko  
berriz itz gozo aienak,  
ez dit petxua atseginduko  
musu laztan amarenak,  
zeren Jaunaren aldamenera  
goititu ziran dienak.

(Ibaizabal, 1902, Garagarrilla, 27.)

(1) *Ibaizabal*ek jabeak dio; jaleak bear duala derizkiogu eta ala jarri degu.

# Itsasoan

---

(Juli-ri)

Zer dezu, zeru eder zabala?  
Zer dira zure izuak?  
Gorritasunik eztu eman nai  
eguzki garbien suak.  
Artsalde bat, oi, zer artsaldea!  
Itsas arro indartsuak  
zurrunbilluan or daramazki  
afar oritu urtsuak,  
aitzen dirala kaio moko beltz  
nabarbenaren txistuak.

Urak orruaz gogor zatitzen  
duen arkaitz beltz goitikan,  
mirabe gazte penagarri bat  
bere gañean zutikan,  
begiak zorrotz itsasoara  
mugida gabetandikan,  
irristatuaz malkoak samiñ  
tantoka biotzetikan,  
bagak pasiaz barbull otsean  
arkaitzen oñetatikan.

Begietatik saltatu naian  
txingarrak diruditela,  
eta gorputz me liraiñ polita  
aurreratutzen duela,  
amoriozko far gozotxo bat  
irteten zaio berela,  
iduriturik an urrutian  
batel txiki baten bela,  
pozez biotza altxatzeraño  
ikusi zuen bezela.

Kopetaratu zuen eskua  
izerdi otzez bustia,  
ezaguturik ura etzala  
batelen bela txuria,  
ura etzala arrek zaitutzen  
zuen xebera txikia;  
ura zan pizti egalari bat,  
itsas gañeko txoria,  
berri txarraren ekartzallea,  
ekaitzen mandataria.

Orduak presaz or daramate  
menderatuta eguna,  
eta gau beltzak erakusten du  
bere kopeta illuna;  
alare arkaitz gañean dago  
mirabe biotz biguna,  
odoi tartetik *zi za* pasiaz  
tximista bizi gar duna,  
begietara gaitzez emanaz  
beraren argitasuna.

Aize txistuak indar bultzadan  
ondu bear goi-beak,  
entzuten ziran mendi gañetan  
turmoi ots neurri gabeak;  
eudi zaparra jasa bizian,  
eguzki printzak gordeak,  
ugariturik borborka datoz  
menditik beera ur meak...  
Eztu alare arkaitz gañetik  
alde egiten umeak.

Arroka beltza jo eta marruaz  
austen da itsaso otsak,  
ari malkuak ixur azitzen  
ziozkan golpe bakoitzak;  
kolkuan jaso ez zezakean  
biotz larrien tupotsak,  
ai mingarri bat kanporatu du  
zizpiraz bere biotzak,  
aiñ mingarria nola eritzen  
duen arantza zorrotzak.

Sartutzen ziran tximisten suak  
beren koleran urera,  
ziruditela sufrez jo eta  
itsasoa're sutzera...  
Baña ez! Zerbait azaldu zaio  
begi larrien aurrera,  
batel txiki bat gidariekiñ  
olatuetan gain-beera,  
ia arraunka baztertutzen dan  
itsasoaren ertzera.

“Azal zaita, zeru ederra,  
azal zaita zerana,  
itsasoari ateratzeko  
atzaparretan daukana!  
Ixilik zaude! Ez dezu aitzen  
biotz on baten esana?  
Erantzun ordez bigaltzen nazu  
argi sutsua?... Au lana!...  
Zer jarri nazu begiz aurrean?  
Zer da ikusi detana?”



Nere Luisen bateltxua da!  
-dio ikaraz batetan-,  
xebera txiki urratubakiñ  
or dabillena bagetan.  
Birjiña Ama, eskatzen dizut  
esku gurutzetuetan!”  
Arkaitz gañean txit fede biziz  
belaunikatuaz bertan,  
begi bustiak gora jasuz  
asi zan errezuetan.

Berriz tximistak dizdiatzen du  
geiagotuaz argia,  
baña batelik ezta azaltzen  
eta arraun gidaria.  
“Geldi zaitea apur bat -dio-  
tximisten argi sutia!”  
Turmoiak ere baziruditen,  
entzunik aren antsia,  
ziotela; “Ai! Egizu negar!  
Egizu nai dan guzia!”

Zabaldutzen da garra bizia  
mendi, borda ta larrera,  
zabaldutzen da amorratutzen  
dana guzia sutzera;  
arbol igarrak jo ta botatzen  
ditu sustraitik lurrera,  
suaren mingaiñ luze-luzeak  
goizen dirala aizera,  
diruditela kiskaldu bear  
dutela zerua bera.

Turmoi dunbadak indarka datoz  
goi-beak lertu naiean,  
arkitutzen da jo ta guzia  
apurtutzeko gaiean;  
ontan entzun da karrask otsa bat  
arroka beltzen oñean,  
nork sartu dion dardar ikara  
deskanatzeko añean,  
lajiaz tximist sutsuak illa  
bezela arkaitz gañean.

Izarrak illak argi gaberik,  
tximistak dana nai sutu,  
arkaitzak ere beldur-beldur naiz  
ez ote diran izutu;  
nik eztakit gaur goi ortan zer dan,  
eztakit zer dan gertatu,  
eztu nai arratsa izuti ontan  
zeru illunak argitu,  
eztu nai orren ona dalarik,  
eztu nai adiskidetu.

Jantzi zaitea gala ederrez,  
aguro jantzi zaitea,  
udako arrats garbien gisa  
argi loratuz betea.  
Zu etzerade orren gogorra!  
Zerade mantxa gabea,  
zuk erregu au entzungo nazu,  
zera guzien jabea,  
zure eskuaz sosega zazu  
lurreko inozentea.

Eztu entzun nai ta eman dio  
gau itxutuen itxura,  
baga gañeko argi su-garrak  
bildurtasuna, tristura;  
itsasotikan antsi larri bat  
sartzen da bere petxura...  
"Nere Luis da, Jesus maitea!"  
-erregutuaz zerura-,  
"Libra nazazu!" -esan da goitik  
saltatutzen da putzura.

\* \* \*

Itzali dira zeruko suak,  
ezta aizien txisturik,  
itsasoa're nekatu eta  
arkitutzen da geldirik;  
zeru zabala urdiñ-urdiña,  
alaitsua ta pozturik,  
itsas txoriak ezkutatuak,  
guzia dago ixilik,  
eta eguzki eder garbia  
edertasunez beterik.

Jo dubeneko kostalde dana  
eguzki argien suak,  
urtuaz sarri itsas gañeko  
apar nabarben urtsuak,  
ur me-mietan, itsas ertzean,  
ziruditela batuak,  
ziruditela laztan batean  
biak aiñ estu lotuak...  
Nonbait zeruak ala nai eta  
arkitu ziran ituak!

(Ibaizabal, 1902, Abuztua, 10.)

# Bide onez

---

*Airea: Intxauspeko alaba dendaria.)*

Errotatik Lizarpeko Kataliñ,  
astotxua aurretik duela,  
ezkerrera alai begiratuaz  
zerbait zaitzen baluke bezela.

Ezta sortu ume lirañagorik,  
ezta jaio alako damikan,  
ezta ere aiñ arrosa ederrik  
baratzian zabaltzen danikan.

Ordutxo bat sasilar bidetxoan  
bazeraman txit pentsamentuan;  
ontan galai gazte zaitzen zeguena  
jarri zaio far-antzan albuan.

Dio: “Zertan esaten nazu dala  
nik dizudan naitasuna pixka,  
zu bazera nere laztan ezta  
eta nere biotzeko puxka?”

Etziraden izango mingarriak  
ondorengo galaien loriak,  
Lizarpeko alaba panpoxari  
gorritzeko ala koloriak.

Astotxua soseguan zijoan  
esanaz, ai!, bere buruari:  
“Iriñ lakaz gañera ote naizen  
beste zerbait eramaten ari?”

Belarriak gain-beera zebiltzkien,  
atzekua eskuin-ezkerrera;  
pentsamentu illun ontan zijoan  
geldi-geldi bidean aurrera.

Ontan biak baratzatxo batean,  
larbidetik zerbait apartean,  
lora xorta bat edo bi egiten  
an gelditu ziran gereizpean.

Ezkutuan, iñork begiz jo gabe,  
loraz lora maite ziradenak,  
nik uste det bilduko zituztela  
baratzian zeuden ederrenak.

Baserrira burua makurtuta,  
nik ez dakit gertatu zan ala,  
baña askok zioten astotxua  
bakarrikan etxeratu zala.

\* \* \*

Gero, andik illabete gutxira,  
San Pedroko eliza txikian,  
Kataliñ da bere senar gaiaren  
biotz biak antxe batu ziran.

(Ibaizabal, 1902, Abuztua, 17.)

# Lan ta jan

---

Zeru zabal altua  
egon arren goibel,  
arrantzara irten zan  
Etxebeko Migel;  
baita atxitu ere  
eunen bat igel,  
karakolak pillaka  
gizen eta zimel,  
puntaraño betiaz  
aitaren bi zinbel.

Jiran-jiran larriyaz  
zutik ogei bat ol,  
berarekiñ egiñaz  
dotore bi etxol,  
sutzeko jarri dizka  
iru puska arbol,  
kazuela gañian  
oliyotan *kol-kol*,  
an sartzeko igel da  
berreun karakol.

Egiñ ziradeneko  
zerbait bera-bera,  
“Ezta onen gozua  
-ziyon- egabera”:  
An zeudenak jateko  
projimo zan bera,  
azalak zupatuta  
botiaz mai bera,  
ura zan esateko  
gosia berbera.

Eztakit atxitubak  
ote ziran amuz,  
baña guztiyak jana  
etzeguen damuz;  
etzan mantentzekua  
galaiak kalamuz,  
koroitu zan eztakit  
ondoren erramuz,  
Etxebeko lepo beltz  
tripazai *oremus*.

Bukatu zubenian  
zeuden denak jatez,  
etzan asko kejatu  
ez miñ ta ez gatzez;  
ala etzuben artu  
ezertxo're gaitzez,  
ontan abiyaturik  
libratutzen aizez,  
farra egiten zuben  
soñu ura aitez.

Berak ematen ziyon  
nonbait ainbeste poz,  
farrez lasai zijuan  
egiñaz estropoz;  
karakolez bete zan,  
igel eta ardoz,  
ala obe litzake  
orlakuak askoz  
mando baten modura  
betetzia lastoz.

(*La Vasconia*, 1902-VIII-30.)

# Nere txakurra

---

San Bizente kaletik  
Bretxara baña len,  
txakur leial polit bat  
antxen galdu nuen;  
egia da xagurik  
atxitzen etzuen,  
baña jateko nola  
berdiñik ez duen,  
kontatuko ditut zer  
siñale dituen.

Patxikuk jarritako  
izena du *Petxa*,  
goiz askotan joaten da  
bustitzera Bretxa;  
muttur txorrotx-txorrotxa,  
bizkar gaña beltza,  
guraizez ebakia  
belarrien ertza,  
eta tajadarekiñ  
atxitzen errexa.

Luzez ezta izango  
alako ankikan,  
lo dagonian eztu  
egiten kinkikan;  
zer ibiltzen dituen  
arrek atzetikan,  
atzekien azpian  
eta txintxilikan,  
nik uste det ez dala  
etzakienikan.



Bere ille txuriak  
dirudi iriña,  
begi zabalak eta  
berago oriña;  
gorputza egokia,  
pausua ariña,  
atzian plumajia  
kizkurtu, fiñ-fiña,  
bekuak tapatzeko  
apropos egiña.

Orrengatik ez nuben  
salduko, ez eta  
naiz urretan pagatu  
larogei pezeta;  
lepua koxkabillo  
politez beteta,  
aien danen gañian  
nausien bi letra,  
eta tripa azpian  
ezetra, ezetra.

Goizero jartzen nion  
katillu zabala,  
txokolate onakiñ  
kabi eziñ ala;  
badakit kutizia  
aundikua zala,  
ezpazituen onak  
kakaba, kanela,  
etzan artzen asiko  
bere-berielá.

Gañera jale ona  
izanagatikan,  
kriantzaz serbitzen zan  
plater garbitikan;  
mokadu bat etzuen  
jango lurretikan,  
ez eta eran ere  
uren tantorikan,  
neskatxak ezpazion  
sartzen esponjikan.

Kostilla egotera  
su gañian ketan,  
jan nai ezik aguro  
jarriko zan setan;  
txit zan delikadua  
gauza guzietan;  
asitzen bazan ere  
jaten banaketan,  
aurretik igortzita  
ondo manteketan.

Udako artsaldetan  
askotan etxetik  
biak irteten giñan  
pasiatziatik;  
nola sufritzen zuen  
gaixuak burutik,  
*sonbrilla* zabaldutzen  
nion momentutik,  
eguzkiak miñik ez  
egitiagatik.

Zerbait nekatzen bazan  
gelditzen zan bertan,  
mugitu nai ezikan  
ordu osuetan;  
arkitutzen zanian  
orlako kasketan,  
aurtxo baten modura  
pozik batzuetan  
neronek eramaten  
nuen besuetan.

Atzeko labetxotik  
bere suertez aurten,  
tanbor soñuak ere  
ondo zaizka irten;  
konpasa eramanaz  
zituen egiten,  
erretreta frantsesa  
nola ziruditen,  
ala etzuen parra  
gutxi eragiten.

Zurriolako kale  
illun aren bazter,  
txoku artan bizi naiz  
kaletikan ezker;  
txakurra eramaten  
diranari laister,  
itzez emango dizkat  
nai ainbeste esker,  
gero... eztu izango  
eskupetik ezer.

(Ibaizabal, 1902, Irailla, 7.)  
(La Baskonia, 1907-IV-30)

\* \* \*

Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illoba zanak, bere *Aien garaia* liburuan, bertso auen aitamena egiten du. Onela dio *Sagardotegiak* izeneko atalean:

“Gogoan daukat oraindik, gaztetxoak giñala nola amak igandetan bezperetara bialtzen ginduen; eta jai batean, orrela goazela, ikusi nuen kaletar kuadrilla aundi bat zetorrela sagardotegi aldera.

Aietako batek gitarra aundi bat zekarkien bizkarrean, eta pentsatu nuen nere artean: Zertarako du gizon orrek gitarra zar ori?

Ta, orrela, aurrera segitu genduen, bakoitzak geren bidean.

Bezperak bukatu-eta, ordurako arratsaldea pixka bat aurre-ratua zan. Bagentozen etxera eta, sagardotegiaren parera iritxi giñanean, an ikusi nuen len esan dedan gizon ori bere lagunekin, aritz-arbol aundi baten itzalean, mai baten gañean lurrezko kaxuela gorri bat eta aldamenean txarro aundi bat sagardoz betea zuela.

Bere gitarra joaz, bertso polit batzuek kantatzen zituen, jende guzia aoa zabalik bere inguruan zuela.

Ni neroni ere antxe egon nintzan pixka batean gustora asko, aren kanta politak entzuten al nuen atentziorik onenerakin. Ez nituen danak ikasi, baño batzuek bai, eta beste batzuek erdi-ikasi”.

Ondoren bost bertso azaltzen ditu: 1, 2, 5, 3 eta 12'garren, ordena ortan.

# Anjelatxo

---

Dana zegoen pake santuan,  
dana isiltasunian,  
aingerutxoa oieratua  
gelatxo politenian;  
alxatu eta zaitzen jarri da  
koltxoi bigunen gañian:  
eulitxo baten otsikan etzan  
aditzen etxe danian,  
antxume txuri ariñen gisa  
andik saltatu zanian.

Bere amaxok esaten zion  
aingerutxoak zerutik  
jaisten zirala nexka politen  
kontuan egotiatik;  
meza-libruan zer potxoluak  
ziran ikusiagatik,  
beraren lagun egiñ nai zuen  
aiñ txoratua, aiñ pozik,  
par-irritxuan laztantxo bana  
biotzez ematiatik.

Bere gelako ate txikira  
bildurraz eta pozikan  
anka punttetan iritxi zan ez  
egitiatik otsikan;  
kontuz entzuten jarri zan baña  
etzan ezeren kinkikan,  
pasabidian argi ontzi bat  
argi egiñ nai ezikan,  
ikusten zana doi doi atien  
azpiko zirritutikan.

Ille kixkurdun begi urdiña  
arretaz ate onduan,  
arrimatuta giltza txulotik  
zerbait aditu nai zuan;  
baiña gaixua txokaturikan  
eziñ sinistuz zeguan,  
zion txit penaz gora begira:  
“Zerbait pasa da zeruan,  
aingerutxoak ez diranian  
agertu beren orduan”.

Dorre beltzian bederatziak  
nagitsu joagatikan,  
aingeru goxo egal luxien  
berririk etzan goitikan;  
nik eztakit aur zoragarriak  
sentitzen zuen otzikan,  
baña zer pena izango zuen,  
ala egonda zutikan,  
oieratzia zerutarrikan  
ikusi gabetandikan!

Naita bezela itzalia zan  
sebo gabeko kandela,  
nonbait etzuen ikustia nai  
kamis utsian zeguala;  
ontan pausoak nabaitu ditu  
eta sinisturik ala,  
presaz txit ariñ salto batian  
oieratu da berela,  
baita jarri're bill-bill eginda  
lotan balego bezela.

Aiñ biotzetik desio zuen  
aingeru maite-maitia,  
izango zala uste zuena  
urre txingarrez betia,  
loraz jantzia, ille kixkurra  
bizkar gañera botia,  
egal lumazko txuri txuriak,  
potxolo gazte gaztia...  
Ontan ixilik alderatu ta  
kontuz bultza du atia.

Baña non urre txingarrak jetxi  
biar zutenak zerutik,  
ikusitzen du ama sartutzen  
gelako ate txikitik;  
joaten zitzaion gau guzietan  
argitsuakiñ ixillik,  
bere kuttuna ikusi eta  
lo gozotsuan utzirik,  
musu xamur bat kontuz emanda  
ateratzen zan gelatik.

Erdi zabaldu ditu begiak,  
ezkutatua argia,  
segitzen zuen mugitu gabe  
entzun naiean guzia;  
baña oiean nola egiña  
zeukan kabitxo guria,  
eta gañera begiak ixten  
aspalditxotik asia...  
abo xabalka lo gelditu zan  
aingeru zoragarria.

(Ibaizabal, 1902, Azaroa, 9.)

# Aritzaldeko alaba

---

- Txaketa beltza, gona urdiña,  
txesto polit bat besuan,  
plazarakuan ikusi zaitut  
txori ariñen pausuan;  
begiak alai jarri nituen  
gona barrena jasuan,  
ala pozikan egongo nintzan  
begira ordu osuan,  
esanaz: "Zeñek atxi lezaken  
uso polit au lazuan!"

Ainbesteraño gustaturikan  
zure arpegi leguna,  
berialaxen eskeñi nizun  
nere naitasun biguna;  
baña far gabe esan zenidan  
galduaz alaitasuna:  
- Gizarajua! Nekez zabilta  
jarriaz kopet illuna,  
eguzkia det adiskidia,  
bera da nere laguna.

- Lagun egiten dizun bezela  
eguzki garbien galak,  
zu txoratuko zaitu aurtxo bat  
nola amaren magalak;  
laguntza ori pozez artzen du  
Aritzaldeko alabak,  
bideko festak nola ez diran  
izango noski makalak,  
a, zer mantxunga atxitu duen  
eguzki kopet zabalak!



Ni're ixilik joatiagatik  
eguzkiakin batian,  
mingañen punttan iruki zaitut  
txintxilik ordu betian;  
baña orantxen esango dizut  
mirarik gabe golpian:  
emango nuke errialtxo bat,  
naiz izan nere kaltian,  
laguntzen dizun eguzkiakin  
izatiatik partian.

Zenbateraño maite zaitudan  
jakiñ biazu ezikan,  
zeren ez pentsa kontatutzeko  
daukatala nik lotsikan.  
Badakizu zer zure merio  
egingo nuken kasikan?  
Txardiñ xarrakin aste osua  
pasako nuke pozikan,  
zure onduan, ai ene bada!,  
onla egotiatikan.

Berriz ikusi zindutanian  
lengo illunabarrian,  
zure ondoren ibildu nintzan  
eizian bulebarrian.  
Ez al dakizu txoriak nola  
jostatzen diran larrian?  
Ni jostatuko nintzake ala  
zuk ez artzera txarrian,  
naiz gero kontu guziak eman  
Jaungoikoaren aurrian.

Erri osuan zu bezelako  
bi ez dirala deritzat,  
eta gañera artuba zaude  
izarra beziñ argitzat;  
nik eztakit zer merezi dezun,  
laztan-laztana, saritzat,  
bada Jaunaren almena banu,  
artu zadazu egitzat,  
berielaxe egingo nuke  
zeru berri bat zuretzat.

Nere petxuko garra biziak  
zuregatikan daudenak,  
dira kupira gabetandikan  
sutu azitzen nautenak.  
Baña ez al du ezer merezi  
onla sufritzen duenak?...  
– Senarregana laister nua ta  
zure biotzeko penak  
esango diot zigor batekiñ  
ateratzeko dienak.

(Ibaizabal, 1902, Azaroa, 23.)  
(*La Vasconia*, 1903-X-20.)

# Ama aurrari siaskan luak artzen

---

Lo, lo nere izarra  
soseguz egizu,  
lo, lo, ez negar egiñ,  
zurekiñ naukazu;  
munduan luzaruan  
bizi bazera zu,  
negarrez urtutzeko  
denbora badezu.

Nere ume maitia,  
ez al zera loti?  
Amatxo zuregandik  
ez dago urruti,  
beste lanak utzita  
inguruan beti,  
lo arrazitzen dion  
biotzeko bati.

Lo, lo, izar laztana...  
Baña ametsetan  
fartxua erakusten  
dezu ezpañetan;  
eztakit diozuna  
zeñekin ote dan,  
baña amarik gabe  
ez urrutira joan.

Bide zuzenetikan  
irtetian naita,  
galdutzen da trebia,  
ona ere baita;  
ta nik nola zaitudan  
biotzetik maita,  
etzaitut, ez, utziko  
zure ama naiz ta.

Lo, lo, arratsa dago  
oraindik illunik,  
argirik ezta iñon  
izarrena baizik;  
eta argi ori aiñ  
bizia izanik,  
zuriarekin eztu  
konparaziorik.

Lo, lo, egun sentia  
aize epeletan  
gau illuna bultziaz  
emen degu bertan;  
txoriak asi dira  
kantari bordetan,  
sarri artuko zaitut  
nere besuetan.

Baña, nere kutuna,  
aserre zera zu?  
Zeñek, zoragarria,  
zeñek egin dizu?  
Aita ta amarekiñ  
amets egin dezu?(1)  
Irri goxo batekiñ  
baietz esan zazu.

(Ibaizabal, 1902. Abendua, 21.)

(1) Ibaizabal'en: *dizu*.

# Gipuzkoatarren eta Erromakoen antziñako kondaira

---

*(Pablo Zamarripa jaunari donkitua ordañetan.  
Fueroak eta libertadea.)*

## I

Zertara datoz odol sutuan  
ojuz aurrera?  
Zertara datoz erromatarrak  
euskal lurrera?  
Beldurgarria dala diote  
beren sarrera?  
Ez datoz suak itzalitzeko  
leku txarrera!

Oktabiano, gerrariaren  
buruzaria;  
bere banderaz estali nai du  
mundu guzia.  
Ire eskuan arkitzen dala  
gure bizia?  
Itxok apur bat eta sarri aiz  
danen nausia!

Asko dirala arro sartuak  
gure errira?  
Eta zer dio! Ojala geigo  
baldiñ balira.  
Ez ikaratu! Laja igotzea  
mendi goitira;  
amilka asten diradenean  
gutxiko dira.

Mendi basoan entzunik ondo  
anai esana,  
santzo irrintzan or or dijoaz  
etsaiagana,  
puskatutzera ziñez aurrean  
ipintzen zana,  
lajiaz pizti gaiztuarentzat  
aragi jana.

Milla ta millak sartu ziraden  
erromatarrek,  
eta euskaldun mendi mutillak  
ale bakarrek.  
Uste zoroan guri kentzera  
mendi ibarrak?  
Non ziran diña oñezko zikiñ  
aien indarrak?

Burrinbotzean sutzen zirala  
ta asarrean?  
Illak or daude mendi altuan,  
ibai ertzean.  
Zer uste zuten eraso arren  
su txingarrean:  
odol gabeak arkitutzea  
euskal lurtean?

Oktabianok ezagaturik  
dana galtzea,  
nola zepuan eroritzen dan  
otso gosea,  
beldur ikaran gerta etzedin  
gerra luzea,  
eskatu zuen guda batean  
bukatutzea.

Baita euskaldun agintariak  
gizon itzean  
erantzun zion: "Bai milla bider!  
-bere pozean-.  
Iru-eun mutill ortxe daukazkit  
mendi atzean,  
eta etorri onenarekiñ  
nai dezunean".

Soro zabal bat berdez jantzia  
Errezillkua,  
erromatarrak zanpatutzeko  
a zer lekua!  
Burniz josita illotzik uzten  
-ango gustua!-,  
soro berdea gorritzeraño,  
alajainkua!(1)

Aupa t'irrintziz eraso zien  
arras gogotik,  
odol berean bustita bazan  
pilla galantik.  
Arkaitzak ere altxa nai zuten  
beren lekutik,  
etsaiak nola erortzen ziran  
ikustiatik.

Orretarako etorri ziran  
koleratuak?  
Zer uste zuten arkitutzea:  
ardi lotuak?  
Bost urterako mututurikan  
gerra kantuak,  
leiza zuluan gordiaz bapo  
zurriatuak.

Oktabianok zaiturik ura  
bide txarrean,  
mutillak ezur karrask ausita  
illak lurrean;  
bere-berela errabi biziz  
ta su-garrean,  
adierazi zuen lasterka  
Erroma aldean.

Erromakoak lasaitziazatik  
biotz kolera,  
“Atozte -zien- gizon  
geren lurrera”.  
Bai bigaldu're mutill pizkorrak  
erantzuera,  
esanaz: “Presta zaitezte ariñ,  
sarri(2) or gera”.

## II

Arrano bizi egalarien  
modu berean,  
eun euskaldun bildu ziraden  
guztiz pozean;  
Lartaun etxeko semea zuen  
danen aurrean,  
bai irten ere salto ta brinko  
soñu gerrean.

Igeska urak duazten ibai  
Tiber ertzean,  
bere kontuan bezela dauden  
mendi atzean,  
zelai zabal bat sasi lar gabe  
bide luzean,  
an, an erortzen ziran illotzik  
burni otsean!



Mendi mutillak, erromatarrak,  
danak gertuak,  
odoi tarteko tximisten gisa  
su ta gartuak,  
burni zorrotzak jazar bizian  
elkar sartuak,  
eta lur jota akabatzeko  
amorratuak.

O, zeren gogor gudatzen ziran  
mutill guziak,  
lur egiñ eta odol beltzean  
gero nasiak!  
Amari deika oju tristean  
ango antsiak!  
Negar minduak eta txilio  
izugarriak!

Utsa bezela arturik danak  
karrixi otsak,  
arkaitz gogorik etzan, ez, nola  
aien biotzak;  
petxu barrenen kamusten ziran  
burni zorrotzak,  
iru baña sei naiago utzi  
jo ta illotzak.

Ara igeska, gelditutako  
banakak zutik!  
Ara igeska, mendian gora  
jazar lekutik!  
Baña zergatik itzultzen dira  
orren gogotik?  
Euskaldunaren eskuetan ez  
erortziatik!

### III

Gerrak aztu ta bizi zitezen,  
bertan danari  
beren alabak eskeñi zien  
euskaldunari.  
Baita mutillak ontzaz arturik  
eskeñi ori,  
an ezkonduta bizitu ziran  
guziak ongi.

Anaitasunak azpiraturik  
gerra tristea,  
tronpeta otsan zabaldu zuten  
gozoz pakea;  
libru zarretan arkitutzen da  
argi bidea,  
eskudatzeko fueroak eta  
libertadea.

(Ibaizabal, 1903, Otsailla, 22.)

(1) *Como hay Dios*. (Egillearen oarra.)

(2) *Sarri da gure laster*. (*Id.*)

# Madalen

---

*(Airea: Intxauspeko alaba dendaria.)*

Baserritik zerebait apartean  
Munu-mendi txokonen oñean,  
arkitzen da Osasun-Iturria  
arkaitz illun legunen gañean.

Entzuten da gereizpe eder artan  
txoriaren kantatxo xamurrak,  
iturritik irrizaran jaisten dan  
ur paketsu garbien murmurrak.

Maiatzeko eguzki atsegiñak  
Munu-mendi txuritu baña len,  
irteten da Osasun-Iturrira  
Lur-gorriko alaba Madalen.

Begi zabal, ume zoragarria,  
inguruan ezta aiñ ederrik;  
gereizpean txoriak kantatzen du  
zaitzen duen orduan bakarrik.

Iturrira allegatzen danean  
betetzera bere pegartxua,  
badirudi len baña berdeago  
jartzen dala ango belartxua.

Menditikan eiztari bat jaisten da  
itzal billa bide txigorretan,  
sasiz sasi, gertatu dan artean  
Osasungo iturrian bertan.

Ikusirik lurreko aingerua,  
bi saltuan basauntza bezela,  
joan da zerbait arrimatu ondoren  
asi zaio izketan onela:

– Gazte eder berdiñik ez dezuna,  
sasi larrik gabeko loria,  
aize bigun epel laguntzalea  
beziñ zera oraindik obia.

Zu zerade krabeliñen ostua,  
menda berde gozua zera zu;  
ur puxka bat, egarririk nago ta,  
pegar garbi ortatik ekatzu.

Amorioz jaungoiko itxuak gaur  
zuregana bigaldu nau onuntz...  
– Eran zazu egarri bazerade  
ta bestela bazebilzke kontuz.

– Atoz, ene, nere besuetara...  
Joaten zaio laztandu naiean;  
bultzada bat emanda pegartxua  
austen dio buruen gañean.

Korde gabe eiztari ausarta da  
eritua lurrera erori.  
Lur-gorriko alaba alegera  
etxera da bidean kantari.

(Ibatzabal, 1903, Epailla, 22.)

# Erretxinola

---

Zeru altuko bide garbian  
erretxinola egaa legunez  
kantari dua, gozabetea  
kontentasunez.

Aingeru batek deitutzen dio  
eztitasunez, ona izanik,  
baña txoriak eztu entzun nai  
bere esanik.

“Goititu zaite, atoz aguro,  
zabiltza laister –dio gaixuak–,  
entzun ditzagun zure kantatxo  
otseztitsuak.

Utzirik baso, saroi, mendiak,  
atoz egalez, atoz segiran,  
oartutzera txoriak nola  
izaten diran.

Zuk badakizu emen dirala  
menda gozoak, lora garbiak,  
eta Jaungoiko egiazkoen  
mandatariak.

Arren, atozkit, egun berriko  
txori politen esna zalea,  
zeradelako berri onaren  
ekartzallea.

Entzun naiean noizbait bezela  
zure kantatxo xamur gozoak,  
zer zorionez pasa litezken  
ordu osoak!

Negu beltzean eroritzen dan  
elurrak eta kazkarabarrak,  
ez ditu inoiz bustiko zure  
ego ñabarrak”.

Aingerutxoak itz egin zion  
asnas legunez txoritxuari,  
baña txoriyak etzion entzun  
aingeruari.

Erramuaren azpi aldean  
iturritxo bat mur-mur egiñez,  
a, zer pozkiroz gida zan ara  
egaa ariñez!

Ispillu baten argi dizdizak  
iturri garbi aren oñean,  
txori laisterra gain-beeratu zan  
itxumenean.

Gero, ail, gero argi biurtsak  
izanik ala engañatua,  
lazo trebean arkitu zuen  
azken ordua.

(Ibaizabal, 1903, Maiatza, 31.)

(Euskal-Esnalea, 1912-VII-15.)

# Gaixuak!

---

Aize izoztu beldurgarria  
gallendutzen zan indarrez,  
mendi altuak, kanpo zabalak  
jantziak zeuden elurrez;  
eguzkiaren begiratua  
etzan arpegi ederrez,  
txori alegre kantari aiek  
etziran ikusten errez,  
nonbait gaixuak gordeta zeuden  
elurtearen beldurrez.

Zugazti baten adar ertzian  
gutzizko kontuz gordiak,  
txoritxo batek zeukan kabia  
eta kabian umiak;  
amak beraren egal azpian  
estali arren tristiak,  
ume erbalak arkitzen ziran  
gaixuak otzak pasiak,  
eta txioka dardar ikaraz  
ia illian gosiak.

Egaa zabalez eta koajez  
aldedndutzen da kabitik,  
kanpo elurrez estali artan  
zerbait billatziagatik.  
Baña, ai!, baratz polit aietan  
etzan arkitzen lorerik,  
ala txoritxo koajetsua  
saiatutzen zan alperrik,  
zeren janari guziak zeuden  
elur azpian gorderik.

Ogi apur bat arkitu eta  
tristia guztiz kontentu,  
egaa bizian umietara  
beriala zan jiratu.  
Zer poza senti ote zuben ark  
zitzaionian eratu!  
Ala txoriak mokuen punttan  
ura zubenian artu,  
zugaztiraño iritxi naian  
etzan gaixua geratu.

Ama leiala allegaturik  
arbolen aldamenara,  
tunpadako bat ordubantxen zan  
bazter batetik atera;  
egalak oso purrukatu ta  
eroritzen zan gain-beera,  
bere kabia zeukan arboltxo  
zugaztiaren oñera,  
nagiak jua balitz bezela  
illa elurren gañera.

Eiztari bat, ai!, bere eizari  
kontentu aundiz begira,  
egite eder arren pozian  
kantari dua errira;  
txori txikiak beti txioka  
artean bizi badira,  
isildu gabe penagarriak  
aizera ariko dira  
amari deika, noiz biurtuko  
ote zaioten kabira.



Egun sentien argi berriak  
kantuz agurtzen diranak,  
etziran entzun goiz triste artan  
lenaz entzuten ziranak;  
kabian epel bere amakiñ  
gutziz kontentu zeudenak,  
ai!, txori txiki eziñ egonak,  
lenago arren gizenak,  
gau luze artan gosiak eta  
otzak ill zituen denak.

Eguzkiaren indarrak gero  
bultzarik aize txistuak,  
etziran asko pozkiratutzen  
zugaztiko umetxuak;  
umezurtzaren gisa lajiak  
ziran eiztari gaiztuak,  
nola etzuten zeñek emanik  
lengo atsegin gozuak,  
amarik gabe nola biziko  
ziran umiak?... Gaixuak!

(Ibaizabal, 1903, Garagarrilla, 21.)

# Ama baten penak

---

– Eskutxotik eldu ta  
eskalletan bera,  
paxtel bana emanta  
etzera atera,  
nere Julitarekiñ  
lenago kalera,  
eskolik ez dalako  
antxen jostatzeraz?  
Non dezu aizpatxua?  
Non ibildu zera?...  
Eztakizula non dan  
esanaz onera  
zatoz zure amaren  
begien aurrera?  
Jesus amoriua!  
Jesus biotz bera!  
Zu nere doloriaz  
kupitzen bazera,  
arren bildu nazazu  
aurtxua etxera!

– Amatxo, nola beste  
denda aundi artan  
amoñakin goxuak  
genituben *ñan ñan*?  
– Non, ene, non?

– Eztaki

Piakiñ lenguan  
paxtel aundi bat nola  
ikusi genduan?  
– A, bai! Pepaenian.

Zer gauzak goguan  
ume berritxu onek  
gordetzen dituan!  
Eta zer?

– Anitatxo  
aizparen kontuan,  
antxen biak utzita  
alkarren onduan,  
nere amonagana  
joan nintzan orduan.  
Amatxo, kulpa denak  
eman Anitari,  
zergatikan Anitak  
esan zidan neri  
ark egingo ziola  
kontu Julitari.  
Ontan kale kantoian  
ama larriari  
azaldu zaio ume  
zoragarri ori.  
Besuak zabaldua  
biotzen pozgarri,  
eman diozka bi, lau  
sei laztan berari,  
bere erraietako  
biotzen puxkari.  
Aurtxuak eldu dio  
gozoz amatxori,  
eta amak malkotan  
laztanka berari,  
begiratuaz zero  
eder garbiari,  
bularra zabalduaz  
berri eder ari,  
nola txori txikiak  
udaberriari,  
zer gozoz, zer pozkiroz  
ta zer miresgarri

amak eman ziozkan  
graziak Jaunari,  
aurtxua besuetan  
ziolako jarri!

(*Ibaizabal*, 1903, Uztaila, 26.)

# Juana eta Martiñ

---

## I

Grazi aundiko beltxeran polit  
zoragarritzko laztana,  
ortz errenkara txuriak beti  
erakutsitzen dauzkana,  
mirabe ondo itzegiñetan  
goxuagarik ez dana,  
baña begiak jarri zituen  
ezkero Martintxogana,  
ez dauka lengo edertasunik,  
galduba dago diena.

Martiñ txit mutill panparroia zan,  
patxandiz jantzia, kontxo!,  
gazte egoki jostalaria  
apaintzen zana ondotxo;  
baña galaia goiz bat ezkero  
ez dabill len beziñ goxo,  
ikusi zuben ezkerotikan  
begi beltz eder Juanatxo,  
gizarajuak ez daki nola  
berekñ egiñ panpantxo.

Beltxeran eder zoragarria  
etxe oneko dama zan,  
mutilla berriz fortuna txarrez  
bizitzen zana pobrezan;  
bien arteko diferentzia  
nola ain txikia etzan,  
maite zuela esan nai zion  
betiko sinistra zezan,  
baña mendian lotsak artuta,  
ai!, etzekien zer esan.

Bere guraso biotz gabeak  
ikusi arren urtutzen,  
ez diote nai diru zaliak  
damari utzi ezkontzen;  
naiago dute bertan ikusi  
kupirik gabe erotzen,  
naiago dute bertan illotzik  
asnasa gabe erortzen,  
ez laja mutill ezer ez duen  
beartsuakiñ batutzen.

– Animatikan esaten dizut:  
ni bizi naizen artian,  
nere Martintxo, maiteko zaitut  
biotza bete betian.

Mutillak gozoz erantzun dio:

– Biok alkartu gaitian,  
Amerikara nua segiran  
fortuna baten bidian...  
Eta ara zer esan zituzten  
gero etxeko atian.

– Nai al dirazu?

– Biotzetikan!

Laztana, ez nai aztuko!

– Bene benetan?

– Naitasun fiñ au  
etzait sekula oztuko!

– Nere Martintxo!

– Nere ametsa!

Ezta sortu ta sortuko...

Juramentuba eskeintzen dizut;  
ni zutzaz aztu orduko,  
nere biotza penaren kargak  
lenago luke urtuko.

## II

Ainbesteraño maite izan da  
bi urte pasa baña len,  
pixka pixkaka naitasun aiek  
ederki aztubak zeuden;  
naiz benetako juramentubak  
biotzetik irten arren,  
galai egoki gazte batekiñ  
biak egiñik alkarren,  
txoko-txokuan Martiñ lajata  
*ttaka* ezkondu ziraden.

Martiñ tristia fortuna billa  
Amerikara joana zan,  
alare bere etorkizuna  
etzan uskeri bat izan;  
Juana ezkondu zan egunian  
faltso gezurtien gisan,  
Martiñengatik zer esanikan  
iñork iduki ez zezan,  
beste panpoxa batekiñ *ttaka*  
ezkondu ziran elizan.

Juanak Martiñengatikan dio  
aiek zirala itz onak,  
Martiñek berriz kulpa zuela  
arri entzuten zionak;  
baña gezurrak nola diraden  
bat eta beste dionak,  
orrentxengatik mundurik mundu  
daude zabalduak sonak,  
txarren-txarrenak dirala beti  
andriak eta gizonak.

(Ibaizabal, 1903, Abendua, 27.)

# Ametsak

---

Jokatzen det loteriyen  
eta oraingo aldiyan  
atarako zait agiyan;  
etxe eder bat altxatutzeko  
zeren naguen premiyan,  
guztiz leku ageriyen,  
Kontxaren erdi-erdiyan,  
antxe bizitu nadiyan.

Nai izan auzuan sala,  
ardo lekuba zabala,  
orixen izan dezala;  
arrizko torre luze eder bat  
begiratzeko dubela,  
zeruba urdiñ daguela,  
Santander gañeko bela  
ikusi litekiela.

Izaten bada saritza,  
joango gerade Parisa,  
aberats askoren gisa;  
laguntzallerik biar badegu  
artuko degu Arbiza,  
etzaigu faltako itza,  
dalako beraren giltza,  
baña alperrik gabiltza.



Beti urtetik urtera  
sari aundiyen bidera  
ez gera gaizki atera,  
loteriyako paperen billa  
muturrak austen kalera;  
ondoren orla bagera,  
seguruba da galera,  
noizbait oroituko gera.

Asiyak gera gazterik  
irabazteko pozturik,  
burubak aizez beterik;  
jokatu eta guziya galdu  
ez degu egiñ besterik;  
jaunak, onlako festarik,  
etxera boltsa usturik,  
ez gaude aberasturik.

Dalako joku *noblia*,  
eta maularik gabia,  
tentatzen daki jendia;  
arraiak joan da sariak bota  
ori da gure idia;  
buru txarraren jabia,  
askotan luke obia  
jua balego lur bia.

Eztakit zenbat urtetan,  
beti sariya ber-bertan  
ibilliya da txeletan!  
Irabaziyak jartzeko nintzan  
berialaxen erretan,  
ezpaldiñ bazan urretan,  
Bankuko paper zarretan,  
baña azkenik zorretan.

Diruba juanik eskapa,  
igual asten naiz piskaka  
ezagunari eskaka;  
jokatu eta an juango dira  
binaka edo launaka;  
gero erdi arrastaka,  
burubari arraskaka,  
ondo nua... atzeraka.

Zorigaiztozko jokua,  
kofre gorriyen txokua  
billatzen duben kakua;  
neri eraman diratenakiñ  
beteko zuten zakua;  
jarriko nuke lepua  
sartzen nautela takua,  
ez txarra alajainkua.

Al dan guziya jokatu,  
nai dana eziñ logratu,  
ez degu lan txarra artu;  
ontzako zarrrik ez genezake  
modu onetan sobratu;  
ustez ederki obratu,  
baña eziñak kobratu,  
orrek amolatu gaitu.

(Baserritarra, 1905-VII-8.)

# Uda ederragua da

---

Aize izoztu beldurgarriya,  
saltoka kazkarabarra,  
a zer lagunak txukatutzeko  
beartsuari negarra!  
Sugurretikan oliyua ta  
auzuan ardo naparra,  
kalian ezer billatzerik ez,  
etxian otordu txarra,  
negu beltzian amolatzen da  
pobria bakar-bakarra.

Neguba dala gauzik onena  
txokaturik det aditu,  
eta benetan au esatia,  
jaunak, meritubak ditu;  
eztula gogor, katarrazua  
erozein moduz atxitu,  
jateko gogo geiago eta  
irabaziyak gutxitu,  
erropa xarrak eta eskerrak  
ezpazaizkiyo txikitu.

Eguzkiya're ezkutatuba,  
zeruba beti goibela,  
turmoi tartetik tximist argiya  
sutan bigaltzen dubela.  
Zer du negubak nai izateko,  
gaiztotzen bada berela?  
Geiena jota bere mesere  
batek esan lezakela:  
oieratzian arkakosuak  
pakian uzten dutela.

Ezta ikusten krabeliñikan  
menda fiñakin nastuak,  
beren lekuan azaltzen dira  
zut-zuta masalaztuak;  
mendi gañian elurra zuri,  
lora lekuak aztuak,  
arbol galaiak *pir pir* egiñaz  
banaka dauzkan ostuak,  
eta daudenak aize izoztu  
gaiztuak jo ta beztuak.

Pobre beartsu kupitubak zer  
lezake neguban arki,  
bazter guziyak elur aiziak,  
ai!, nai baditu ebaki?  
Udak portatzen daki mill'aldiz  
negubak beziñ obeki,  
eztu balio seta gaiztuak,  
au erozeñek badaki:  
otzak biziya atera eta  
beruak ematen daki.

Beti bizi da ganbaran edo  
erozeiñ etxe txarretan,  
eramaten du jan nai dubena  
eman ezkeror zorretan;  
ez bildur izan, ezta itoko  
Bankuko paper zarretan,  
diru pillikan naitare eztu  
errez jarriko errentan,  
Aritz-azpiko indiyanuen  
gisa ontzako urretan.

Udaren gabak alaiak dira,  
alaiagua eguna,  
kariño aundiz asnasten dala  
beraren aize biguna;  
izoztu gaizto arren ordeztu da  
atsegiña ta leguna,  
zabaldutzen du laztandu naian  
daraman gozotasuna,  
uda ederra orrengatik da  
pobre guziyen laguna.

An azaltzen da arto berdia,  
azaldutzen da gariya,  
erakutsiyaz bere buruba  
urre kolorez jantziya;  
marrubi gozo, esparraguak,  
tomate guri-guriya,  
osto tartian jostatzen dala  
ginga anpolai gorriya,  
matsa, udare, melokotoiak,  
eska liteken guziya.

Orrentxengatik pobria danak  
beti bizi nai du udan,  
ala neguban galdetutzen du  
laguntzallia nun duban.  
Eta nola ez galdetu beste  
ezer ez badu munduban?  
Menderatuba baldiñ baleuka  
egon gabetandik dudana,  
urte osua jarriko luke  
uda ederren moduban.

(Baserritarra, 1906-II-17)

# Kabiya

---

Burrioen kabiya  
lengoko goizian  
billatu det pareta  
urratu batian;  
eraman da utzi det  
kaiol politian,  
leiotikan kanpora  
txintxilik iltzian.

Nola *txio txioka*  
ixiltzen etziran,  
ar-emiak janakiñ  
an ziran segiran,  
barrena sartu naian  
kaiolaren jiran;  
gero alien billa  
andik joaten ziran.

Mokuan artu eta  
egalka kanpotik,  
biyak janariyakiñ  
an ziraden pozik,  
ausi ta sartu naian  
alanbre tartetik,  
umiari alia  
ematiagatik.

Ta izan biar zuten  
añ ale goxuak,  
guri-guriyak zeuden  
kaiolan presuak,  
luma berri politez  
apaintzen gaxuak,  
nola apaintzen diran  
mendiyan xoxuak.

Guraso onak nola  
aurra maite duten,  
ala kaiolen jiran  
ziraden ikusten;  
mokoka alanbriak  
ausi nai zituzten,  
ia libertadia  
logratutzen zuten.

Txotx bat igurtzi nuben  
bixkakiñ orduan.  
txoriyak igarriko  
etzuten moduan;  
ipiñi ziraneko  
kaiolen onduan,  
biyak erori ziran  
bixkaren lazuan.

Kaiolatik nituben  
umetxuak artu,  
eta beren lekuban  
ar-emiak sartu;  
utzi orduko zuten  
txikiyak egaatu,  
baña leio aldera  
etziran jiratu.

*Txio txio* ziyoten  
kaiolan tristiak,  
merezi etzutenak  
atia ixtiak;  
deitu arren etziran  
ageri gaztiak,  
pena ematen zuten  
ala ikustiak!

Urrengo egunian  
leiora ixilik  
joan eta ikusi det  
kaiola txintxilik;  
bere txoko-txokuan  
lumetan bildurik,  
gaxuak illak zeuden...  
penaz uste det nik!

Izan litezke seme  
eta gurasuak,  
gertatzen zaizkatenak  
onlako kontuak.

(Baserritarra, 1907-II-16.)



# Zeñek esan?

---

Gure lumaren arrasto danak,  
jakintsu askok diyonez,  
argiratzeko ez dira diña  
nik irakurri detanez;  
eskribatzalle txarrak gerala  
diyote, ikusten danez;  
ta ni *poeta* nintzalakuan  
egitez nola izenez,  
pozez danari kontatzen niyon...  
ta ordurako izan ez!

Aize putzaren moduan dira  
gure zentzuen indarrak,  
kemen gabiak, nola sukalde  
txokoko egur igarrak;  
naitare piztu eziñ diranak  
biyotz mugiren txingarrak,  
alperrik dira, ai!, gure deliak,  
alperrik gure negarrak,  
gu jo gaituzte geradelako  
danak bertsogille txarrak.

Nondik pentsatu nezakian nik,  
nondikan eman goguak,  
baziradela ezkribatzalle  
ni baño abillaguak?  
Baldinda esan ez baziraten  
Euskal Erriko maisuak  
gure bertsuak danak zirala  
txarra baña txarraguak,  
etzizkiraten biziro errez  
neri moztuko eguak.

Eta neri nork esango ziran  
gure euskerazko lanak  
dana guziyak dirala inon  
etartu ez litezkenak?  
Asko jakiñak diyote mami  
gabiak dirala denak,  
biar aundiko zentzu ederra  
agitz urruti dutenak,  
azaldu diran izkribuetan  
izan litezken txarrenak.

Mitxirrika bat mandataritzat,  
nola joaten dan uxua,  
lorarik lora zentzuen billa  
bigaldu nuben gaixua;  
erramupian ezkutatua  
fin-finka xoxua(1)  
entzunak bidez erretxiñolen  
kanta eztitsu goxua,  
bañan etzuben arkitu neri  
falta zitzaidan zentzua.

Ni ere zerbait nintzalakuan  
mintzatu nintzan lenago,  
zer naizen jakin detan ezkerro  
oraiñ damutuba nago;  
nere biyotza samintasunen  
penaz eroriya dago,  
zuek, goititu zeraten jaunak  
zerua baña gorago,  
barka nazute oraingua ta  
ez det egingo geiago.(2)

(*La Baskonia*, 1907-II-20.)

(1) Lerro ontan zerbait falta dala dudarik ez da.

(2) Bertso auetan ikusten danez, norbaitek euskal idazle edo bertso-jartzailleen aurka itzegin du. Nor ote? Bearbada Karmelo Etxegaray jauna izango da. Ikus aren *Apéndice a la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa, Introducción*, Tolosa, 1901.

# Erritarrak

---

Gure lurreko erritxo polit  
txukun batian,  
gazteri dana plazan biltzen da  
jai artsaldian,  
atabal eta sasi danboliñ  
txistu otsera  
kriskitiñ fiñak biatzez joaz  
dantzatutzera.

Baita ni ere lagun birekiñ  
plazan bertara,  
arrimatuaz dantzatu naian  
neskatxetara;  
ipiñi ere agur egiñaz  
beren onduan,  
baña far-antzan arkitu giñan  
burla moduan.

– Ez al dezu nai nerekiñ ezer,  
ume maitia?  
Ez al dezu nai nerekin pasa  
arratsaldia?  
Ez al dakizu illuna laister  
gañian dala,  
eta jotzian Abe Mariya  
ezer ez dala?

Begira zaiza sasi danboliñ  
alegri orri,  
jo ta jo nola jartzen zaiozkan  
masallak gorri;  
zu onratzeko doñuba dala  
ikusirikan,  
zerengatikan añ gogor zaude,  
zerengatikan?

Jakiñ nai nuke zeren meriyo,  
ai!, nazun uzten...  
– Zergatik gure erri danian  
esaten duten  
nai dezutela dantzatu beti  
agarratuta,  
añ estu nola bageunde sokaz  
amarratuta.

Eta orrela dantzatutzia  
pekatuba da!  
– Zer esan dezu? Danik onena  
orlaxe bada?  
– Zuk diyozuna izanda ere  
nik naiagatik,  
amak txeleta egingo luke  
leiatillatik.

– Bañan, txorua, zaude ixillik!  
Ez esan ori!  
Urte asko da nola kontatu  
ziraten neri,  
oso poliki eldu eta zuk  
ez uste ala,  
gazte denboran zedorren ama  
ibiltzen zala.

Esan zaiozu zure amari  
etxeratzián,  
zuk ez dezula kontrabandorik  
etxe atzian.  
Gazte liraña zeran meriyo  
nai zendukela  
dantzatu, ama gazte denboran  
bezel-bezela.

– Pekatu dala esaten dute  
erri danian,  
eta zerebait izan liteke  
diyotenian.  
Laister joango naiz galdetutzera  
aitonagana,  
ta egingo det andik aurrera  
bere esana.

(Baserritarra, 1907-X-26.)

# Arrai zalia

---

“Zer ederra dan txardiñ erria!  
Zer ederra dan antxua,  
udako berdel bizkar gizona,  
txitxarrua ta pantxua!”.  
Bizkar gañian biatz birekiñ  
laister egiñik gantxua,  
ateratuaz ezurrik gabe  
alako mami trontxua,  
orla ari zan predikatutzen  
Joxe Domingo Mantxua.

“Arrantzaliak nola jatorrez  
arrai zaliak geran gu,  
eper ederra bestek jatia  
askotaz naiago degu;  
ollanda gazte gizen-gizena  
mayian jartzen bazaigu,  
despreziyozko begiratuba  
laister egingo diyogu,  
zergatik guri orlako janak  
onik egiten ez digu.

Baña potaren puska legorra  
ketan ederki beztua,  
alako jana zanpatutzia  
ura bai dala gustua!  
Gañera bada beraren ustel  
usaiarekiñ nastua,  
nik beintzat errez egingo nuke  
bost errialeen gastua,  
naiz gero esan: “Ganbelerako  
a zer nolako astua!”.

Zeñek ez du jan trinpoll erria  
eta legatzen arraba,  
ikusi utsak eragiñ azten  
dutenak abuan baba?  
Eta nork ezur zorrotz aiekiñ  
arroka beltzeko kraba,  
jan ordurako jartzen zaiona  
eztarriyan ezur traba,  
pasiaz gero amolatuba  
kasikan itotzen gaba?

Kabuxa ere ezur zorrotzez  
ondo apaindurik ala,  
nork esaten du urdai azpiko  
giyarra obia dala?  
Nik agintzera arrai oiekiñ  
esango nuke berela,  
ikusirikan kabuxa jaunak  
meritu asko dubela:  
“Ori jan biar duben gizonak  
kendu dezala txapela”.

Zer nai dezute konparatzeko  
jarri muxarren onduan,  
ez baldin bada mokadu goxo  
oberik sortu munduan?  
Uda partian gusto ederra,  
ederragua neguan,  
ezagutu nai ez al dezute  
arrazoi gizon moduan?  
Egiya al da?”.

“Bai, bai, ala da”.  
“Zer zabiltzate orduan?”.

(Baserritarra, 1907-XI-9.)

# Eguarriyetako turroia

---

Eztakit zeñek bigaldu ziran  
lengo batian  
turroi puska bat Alikantetik  
nere kaltian.  
Añ zan gogorra ormigoi ura,  
arraietua!,  
asko gizonen buruba baña  
gogorragua.

Zer egingo det puska zar aundi  
oni begira,  
ikaratuta ortzak kolokan  
jartzen badira?  
Puskatutzeko artu nai arren  
esku labana,  
badakit zierto gerriyetatik  
joango zaitana.

Zerra koskor bat oroitu nintzan  
an sukaldian  
biar zubela egon txintxilik  
iltze batian;  
asi naiz austen sirri ta sarra  
egiñaz otsa,  
baña aguro galdu ziyozkan  
iru-lau ortza.



Ezagaturik nere indarra  
añ zala utsa,  
auzoko bati eskatu niyon  
bere laguntza;  
maukak jasota an zan aguro  
ate oñian,  
aizkora luze zorrotz batekiñ  
bizkar gañian.

Eman diyozka eztakit zenbat  
golpe gogorak,  
eun metruan aitutzekuak  
Erramun gorrak.  
Jo du indarrez nola jotzen dan  
zi za aritza,  
baña, ai, turroi ormigoizkua  
arkaitzen gisa!

Ikusirikan alper-alperrik  
zala lan ori,  
leiotik deitu niyon auzuan  
ziran denari.  
Baña etzuben ezer baliyo  
ango auzuak,  
nola indarrez eman ziyozkan  
aizkorazuak.

Ezta labanik, ezta zerrikan,  
ezta aizkorik,  
lertuta ere orri zati bat  
kentzen diyonik.  
Emen egin dan lan guziya da  
alper nekia,  
zeren turroien orde z bigaldu  
nauten blokia.

Azkeneko balaz bete det  
nere pistola,  
au ikusi ta ia biguntzen  
ote dan orla.  
Nabaiturikan galduba zala  
neke guziya,  
egondu nintzan ekarritzeko  
artilleriya.

An dago salan Alikanteko  
turroi zatia,  
nere partetik nai dubenentzat  
pozik utziya.  
Iñork nai badu gaur bertan egiñ  
beraren jabe,  
esan dezala besteren batek  
eraman gabe.

(Baserritarra, 1927-XII-21.)

# Lagun zarra!

---

Aizak, Beltxa, zergatik  
lurrian aiz etzan?  
Mingaña totelduta  
eziñ al dek esan?  
Ori dek zurrutian  
aizelako izan,  
eta muturreraño  
bete ez ba-itzan,  
ni bezela plantoxo  
ibilliko itzan.

Pauso bat zuzen eziñ  
emanik aurrera,  
kortxuba galdu eta  
an joan aiz lurrera;  
ikusirik añ gaizki  
ire ibillera,  
zeladoriak artu  
balute txarrera,  
billatuko zitekan  
iretzat perrera.

Orrengatik nai diat  
nik beti aukeran,  
mozkortu gabetandik  
kontu aundiz eran;  
ni arrapatutzera  
orrelako eran,  
lotuta eramango  
niotekek leran,  
ederki afaltzera  
irekiñ perreran.

Nola aizen askotan  
añ gaizki ikusi,  
orreatatik biar dek  
eratia utzi!  
Ez al dek neregandik  
oraindik ikasi?  
Mutill, baldin nai badek  
luzaruan bizi,  
erariyari laja  
akiyok lenbizi!

Irikiya badago  
etxeko atia,  
onena egingo dek  
altxa ta joatia;  
nola arkitzen aizen  
ederki betia,  
argatik dek iretzat  
askotaz obia,  
bestela pasako zaik  
gañetik tranbia.

*(Baserritarra, 1908-I-4.)*

# Sagardotegiyak

---

Argiratu nai ditut  
lengoko berriyak,  
esateko zer ziran  
sagardotegiyak;  
nik emen kontatutzen  
ditudan guziyak,  
gezurrak ez diranak  
dirade egiyak.

Sagardotegiya zan  
guztizko illuna,  
ezagutzen etzala  
gaba ta eguna;  
sagardua bikaña,  
gañera leguna,  
berritxukerirako  
askoren laguna.

Krisillu bat txintxilik,  
nola gero, nola!  
Lumera usaia ta  
kia dariyola;  
iñoiz merezi zuen  
alako *krisola*  
jo ta puskatutzia,  
arrayiak pola!

Arrizko brasero bat  
txarra ta zikiña,  
Igeldoko arrubi  
aietan egiña,  
erretzeko mokadu  
goxua ta fiña:  
bakallu zarra edo  
bestela txardiña.

Txapelakin aizeka  
ondo makurtuta,  
kasikan braseruan  
sugurra sartuta;  
txardiñ zarrak kiskurrez  
guziyak gartuta,  
jaten ziran piñuben  
usaia artuta.

Baso bat prestatzeko  
eskatzerakuan,  
ez beintzat janaririk  
laja braseruan;  
bada upel gañeko  
katubak orduan  
salta ta jartzen ziran  
beraren kontuan.

Ez bazan krisillura  
begiratzen gora,  
askotan sartutzen zan  
babilla lepora;  
eta jatxitzen bazan  
andikan kolkora,  
agur larruba eta  
agur alkandora!

Errenkaran bi edo  
lau banku luziak,  
galtzak garbitutzeko  
zikiñez pasiak;  
katu zulo aundi bat  
kaleko atiak,  
aizez preskatutzeko  
sagardoz betiak.

Erozein paretetan  
arrimatzen bazan,  
zuritu biarran  
beztu egiten zan;  
eta broman lurrian  
nai bazuben etzan,  
lixiban sartuta're  
garbituko etzan.

Nola ziraden lujo  
aundiyen zaliak,  
ikusgarriyak zeuden  
goiak eta biak;  
kurtina bordatubak  
txintxilik pariak,  
fiñez ziruditela  
armama sariak.

Jayian pagatzeko  
asteko basuak,  
upel aurriak ziran  
kleraz markatuak;  
guziyak zuzen-zuzen  
errenkaratuak,  
ziruditela pauso  
ikasten kintuak.

Sagardo saltzalliak  
baziran amonak,  
ezkongai, ezkondubak  
eta alargunak;  
txit ondo itzegiñak,  
guziyen lagunak,  
eta gañera ziran  
danak euskaldunak.

Orañ *luz eletrikak*  
egiten du argi,  
eta guziyak daude  
sala bezin garbi;  
oraindaño bezela  
segitzera, aurki  
leku txukunagorik  
ez liteke arki.

Upel garbiyak eta  
sendo josirikan,  
ezta erraz arkitzen  
ederragorikan.  
Baña zer baliyo du  
orla izanikan,  
ez baldin bada saltzen  
sagardo onikan?

Lenagoko sagardo,  
pitar da zizarrak,  
progan jartzen zituzten  
gizonen indarrak;  
berriyak onak ziran,  
txit bikañak zarrak,  
baña orain saldutzen  
diran denak txarrak.

(*Euskal-Esnalea*, 1912, Azarua, 20.)



# Estropadak Egia ote da?

---

Estropadik eztala  
udara onetan,  
ori kontatzen dute  
leku geienetan;  
asko gelditu biar  
dirade penetan,  
ez ikusi biarra  
zutik txalupetan  
bulla dariyotela  
danak erriyertan.

Jokatzeko eguna  
allegatutzian,  
eta siñale danak  
jarri ondorian,  
beti bazuten zerbait  
treña bakoitzian:  
batian iskanbilla,  
ojuka bestian...  
Izugarriyak dira  
orrela astian!

Noizbait jokatzeko  
prestatzen badira,  
altxa ta berriketan  
berdiñ asten dira;  
ikusi izandu det  
aien erretira,  
jokatu gabetandik  
saltatzen errira  
eta andikan joaten  
sagardotegira.

Bogalari bikañak  
eustian lanari,  
badakite altxatzen  
onra erriyari.  
Eta asarretzian?  
Gezurra diruri!  
Naiago amor eman  
baña len iñori,  
biziya kendu... iru  
baso sagardori!

Garbi aitortu nai det,  
gizonak bezela,  
oraingo gaztiakin  
ari ez naizela;  
ez dakit mutill abek  
diraden orrela,  
baña iduritzen zait  
esan litekela  
lengo zarraren antza  
izango dutela.

Treñarekin etortzen  
ziran kanpotarrak,  
gaitzak ziraden neurtzen  
beraren indarrak;  
emenguak oju ta  
aiek deadarrak,  
a zer mutillak danak,  
onak edo txarrak,  
arraunaz berotzeko  
alkarren bizkarrak!

Pena artzekua da  
añ jende gaztia,  
treñero apustuban  
ez ikusitzia;  
batzubek *mar-mar* daude  
ori gertatzia,  
zeren diran bi festa  
eder galaztia:  
bat arraunian eta...  
ojuka bestia.

(*Euskal-Esnalea*, 1915, Uztailla, 30.)

# Apari batez ostatuban

---

Begi biziyak eperren gisa,  
karnaba beziñ airosa,  
kasikan deitu litzaiokena  
Apirilleko arrosa;  
far-irri ariñ tentatzallia,  
naiz serbitzalle panpoxa;  
aldamenian jartzen zanian  
ala sartzen ziran poza...  
gai zan txulioz mugi azteko  
mutill zar baten biyotza.

Urpeko arri ederrak eta  
diamante garestiyak  
ez dute denak baliyorikan  
nola aren arpegiyak;  
kolpez itzaldur izan balira  
gela artako argiyak,  
aiek ainbeste emango zuten  
mirabe aren begiyak,  
masusta baña beltxagokuak...  
izarra beziñ garbiyak...

Lora xorta bat edergarritzat  
maien erdiyan zeguan,  
aietako bat eskeñi eta  
ipiñi niyon eskuban;  
usai egiñaz, biatz birekin  
farrez jarri du petxuban;  
begiyetara azaldurikan  
ura alako itxuran...  
baten lekuban bi *bistek* artu  
nituben nere itxuban.

Añ eztitsu itz egiten ziran  
eta añ biguntasunez,  
aietxek entzun eta biyotza  
bete ziran zorionez;  
gabaz izarra ziruriyena,  
lora garbiya egunez,  
zeru zabalak aukeratuba  
jazteko edertasunez,  
nork zezakian *bistek* bezela  
estali laztantasunez!

Esku emanaz andik kanpora  
penatuba ninjuala,  
biyotzez esan niyon bi itztxo  
esan biar niyozkala;  
nik uste nuben nere esanaz  
benetan gustatzen zala,  
baña kupida gabe algaraz  
erantzun dit beriala:  
– Oker zabilta; bi illabete  
dira ezkondu nintzala!

(*Euskal-Esnalea*, 1916)

# Zu ta ni

---

Lasto me-mien billa zebiltzan  
bi txori txiki-txikiyak,  
arbol gañian, ail, egiteko  
bakoitzak beren kabiyak;  
baña batetan nik ez dakit zer  
pentsatu zuten txoriyak,  
aren kontentu apaindutzeko  
kabitxo polit bat biyak.

Ni ere zure ondoren nabill  
enamoratuba dana,  
baña eztakit amoriyorik  
sentitzen dezun nigana;  
baldin-da ondo uste badezu  
zoramen laztan-lasztana,  
nai dezu biyak egin dezagun  
txoriyak egin zutena?

Baietz esango bazenirake  
ume on baten moduban,  
itz eder ori zabalduko det  
berialaxe munduban;  
eta gañera jakingo dezu,  
maitia, nola orduban  
pena guziyak ateratu ta  
sartuko nazun zeruban.

Jakiñik maite zaitutala nik  
biyotz t'anima guztitik,  
naitasun aundi on au aztuta  
joan ziñan Donostitik;  
gelditu nintzan negar ta negar  
egiñaz biyotz eztitik,  
nola aurtxua ateratzian:  
bere amaren tititik.

Zure begi beltz tentatzalliak  
beti famatutakuak,  
ondo dakizu dirala nere  
penaren kolorekuak;  
gau izarratu ederra bañan  
oraindik ederraguak,  
penak kendutzen dakizkitenak  
beraren begiratuak.

Erregutuko nuke zerura  
pozkiroz bein ta bi aldiz,  
baldin-da nere pentsamentuban  
argi errañu bat balitz,  
eskeñiyaz añ egi ederrez  
eta borondate aundiz  
nere anima, baldin-da gure  
Jainkuarena ezipalitz.

Amarentzako leku txiki bat  
kontatu nizun lenguan  
guztizko kontu aundiz neukala  
biyotzen txoko-txokuan;  
sinista zazun amoriyu au  
zenbaterañokua dan,  
zuk nai badezu gordeko zaitut  
nere amaren lekuan.

Baña badakit itz xamur ori  
alperrik esan nizula,  
zeren goguan daukatan burlaz  
erantzun zenidazula:  
zure petxuko atia joko  
banu, edeki nazula,  
laister esango zenidazuke:  
“Jainkuak lagun dizula”.

*(Euskal-Esnalea, 1916, Uztaila, 30.)*



# Siaskaren onduan

---

*Nere maitia, lo ta lo  
egin biezu luzaro;  
zuk orain eta nik gero  
biyak egingo degu lo.*

Begiratutzen diyo amari aurtxuak,  
esan naian bezela zerebait gaixuak;  
amak kantatzen dizka kantatxo goxuak,  
baña lorikan eziñ egin du uxuak.

Ama zoratuko da, baña nola, nola!  
Bere lastana eziñ pozturik iñola;  
malkua masallian beera dariyola,  
ikaratua aurra ill biar zaiola.

“Pupu dezu, maitia” lezaioke esan,  
zeren aldamenetik mugitutzen eztan;  
amaren pena nola biyotzekua dan,  
eztakit samiñago zer liteken izan!

Gorontza askatutzen diyo beriala,  
petxu txuri-txuriya agertutzen dala;  
bere begiratuak zirudiyen ala,  
“Non dezu, non, pupua?” galdetzen ziyola.

Amak estalitzen du kontuz berritikan,  
biyotzeko malkuak gorde eziñikan;  
aurtxua poztutzeko ez dakit danikan  
ezer bere amaren lastana baizikan.

Goxo-goxo artu du luak iya-iya,  
*txuku txuku* eranaz amaren titiya;  
geldi ibiltzen diyo siaska txikiya,  
esnatu ez deriyen etxeko gloriya.

Kantatzen diyo: "Nere maitia, lo ta lo  
ixil-ixillik egiñ biezu luzaro;  
siaskatxu ortan zuk orain ta nik gero,  
nere izarra, biyok egingo degu lo!"

Odoi illun tartetik, alako moduan,  
illargiya biyari begira zeguan;  
ama ikusten zuen siaska onduan,  
alkiyan exeriya aurraren kontuan.

"Zaudezte ixilikan, aize indartsuak,  
nere laztan-lasztana artu du-ta luak;  
ez dezute ikusten ume gaixotuak  
nola penatzen nauen eziñ gozatuak?"

Ezta ama onaren bezelako itzik,  
ezta xamurtasunez alako biyotzik;  
umiari laztanka asitzian pozik,  
eztakite ematen dozenaka baizik.

Far-irriya azaltzen zaio ezpañetan,  
nonbait aingerutxua dabill ametsetan;  
ez galaztera lua, amak zenbatetan  
artuko ote luke bere besuetan!

Zerbait sosegaturik lengo penatikan,  
ama ona irten da bere gelatikan,  
oñ punttetan ixillik eta geldirikan,  
ume zoragarriya lotan utzirikan.

(*Euskal-Esnalea*, 1916. Iraila, 15.)

# Pelotariyak

---

## ***Eibarko txikiya***

Onen txestotik ateratzen da  
pelota txit zatituba,  
naiz bera izan txatar motela  
edo naiz izan pisuba;  
zenbait plazetan sartu azi du  
patrikerako izuba,  
lau modutara ezagututzen  
dute guztien maisuba.

## ***Billabonako Mainguba***

Odol biziko pelotariya  
plazaratu zan gazterik,  
ez da ikusi inor egiten  
ark bezin sake gaiztorik;  
aurrian jotzen dubenak berriz  
egian nai ezik boterik,  
pelota gogor ebakitzeko  
ez da azaldu besterik.

## ***Mardura***

Ankaz azkarra, buruz abilla,  
plaza ongi du betetzen,  
maneju ona dauka gañera  
pelota ongi baztertzen;  
kontrariyuak gutxitan diyo  
nai aña bolia artzen,  
oni partida irabazteko  
ez ditu lan txarrak jartzen.

### ***Elizegi***

Erremontian nola elduta  
biyak ederki dakizki,  
indarra eta beso libria  
sobra berekiñ daukazki;  
zerbait maliziz jazten danian  
duda gaberik da aski,  
onenen kontra jokatu eta  
irabazitzeko noski.

### ***Baltaxar***

Au da Marduren plaza laguna,  
aurreko jokalaria,  
begi zorrotz dun mutil ernia  
biziro bildurgarriya;  
kontrariyua bere lekuan  
naiz ondo egon jarriya,  
kontugabetzen bada aguro  
artuko diyo neurriya.

### ***Brau Txikiya***

Errebes eder, lasai galaia,  
meritu aundiko juak,  
esnatuko du kontrariyua  
tentatzen badauka luak.  
A zer mutilla billatutzeko  
txokuak edo txuluak!  
Plaza danetan oparo ditu  
irabaziyak txaluak.

### ***Bergarrara***

Indarrez jo ta egiten badu  
pelotak zorrotz botia,  
beso azpitik tiratutzeko  
beretzako da obia;  
egokiya ta sasoiekua,  
batere bildur gabia,  
dudarik gabe ez da erozeiñ  
onlako ditxen jabia.

### ***Brau zarra***

Onen mugirak biziyak dira  
beti partida danetan,  
txantxarik gabe jokatutzen du  
irabaztera benetan;  
bere bolia fiñakin daki  
pelota jartzen anketan,  
orreatatik du kontra dubena  
erabillitzen neketan.

### ***Portal***

Urte bete da geienez ere  
txestoz egiña sarrera,  
nonbait argatik erortzen zaizka  
iñoiz pelotak lurrera;  
baña bolia indartsu arrek  
bultzatzen badu aurrera,  
moda berriko kolejiyuan  
egiña dauka karrera.

### **Meltxor**

Mutiko pizkor korajetsua  
asten danian saltatzen,  
irixko gazte bizi-bizia  
dirudi plazan jokatzten;  
oso da fiña, argatik daki  
azken tantoraño eltzen;  
Meltxor'en faltan ez da partida  
berialakuan galtzen.

### **Zarrak**

Lizurume ta San Juan izandu  
dira blekari osuak,  
Joxe Juakin da Txikibar zalla  
fin eta baliosuak;  
Potona ona; Bega zimelak  
jarriko ditu lazuak,  
jokatu eta irabazteko  
lagundutzerera besuak.

### **Gaztiak**

Sanperio eta Pasiegua,  
Antonino ta bestiak,  
azaltzen asi dira plazara  
txit pelotari gaztiak;  
antxen bildutzen dira galaiak  
langilliakiñ nastiak,  
gure oitura zarrak ez baitu  
merezi galtzen uztiak.

# Arkibidea

Biktoriano Iraola Aristigieta (1841-1919) .....	7
Au poza senti det! .....	11
Abenduaren 7 <sup>a</sup> 1688-garren urtean .....	14
Guda, gudariak eta beren itz-bideak .....	17
Lore igartua .....	22
Jose Maria Zubia "Mari" .....	24
Pedro Calderón de la Barca jaunari bere eunkian .....	28
Bai pozik .....	33
Txurruka Trafalgar-en .....	34
Artzai-jolasa .....	39
Erriko seme donostiarra .....	44
Donostiari .....	45
Bere seme batek Donostiari .....	51
Irakurgai txiki bat beste batetik moldatuba ...	55
Euskaldun leial bat .....	58
Iñauteriyak Donostian lenago eta oraiñ .....	63
Petra txardiñ saltzallia .....	72
Jose Maria Iparragirre .....	75
Kazkarabarra .....	81
Arrazoia eta urrea .....	83
Pedro Mari biursari gozotsuarentzat .....	85
Aurra urian .....	90
Alabaren naitasuna .....	92
Pakearen ontasunak. Pakea da zerua. ....	94
Astua gosiak .....	101
Loiolakua .....	103
Ama baten negarra .....	105
Zardin saltzallia Donostian .....	110
Arrantzalea .....	113
Kejak .....	115
Nexka eta perlak .....	117
Lore lotsati bati .....	119
Nere kabien oñean .....	122

Itsasoan .....	126
Bide onez .....	132
Lan ta jan .....	134
Nere txakurra .....	136
Anjelatxo .....	141
Aritzaldeko alaba .....	144
Ama aurrari siaskan luak artzen .....	147
Gipuzkoatarren eta Erromakoen antziñako kondaira .....	149
Madalen .....	155
Erretxinola .....	157
Gaixuak! .....	159
Ama baten penak .....	162
Juana eta Martiñ .....	165
Ametsak .....	168
Uda ederragua da .....	171
Kabiya .....	174
Zeñek esan? .....	177
Erritarrak .....	179
Arrai zalia .....	182
Eguarriyetako turroia .....	184
Lagun zarra! .....	187
Sagardotegiyak .....	189
Estropadak. Egia ote da? .....	193
Apari batez ostatuban .....	196
Zu ta ni .....	198
Siaskaren onduan .....	201
Pelotariyak .....	203





1051082  
G-128/99



Biktoriano Iraola Aristegieta (1840-1919), Fueroak galdu ondoren Donostian osatu zan euskalzale-gizaldi edo taldekoa degu. Euskal idazle saiatsuak aiek, gure izkuntzaren aldeko mugimentu bizi bat sortu zutenak.

Iraola itz-lauz saiatsu zan: ipuiak eta antzerkiak. Baiña bai itz neurtuetan ere: ipui edo fabulak, epigramak, olerkiak, kanta-paperen antzeko bertso-saillak... Auetan, bertsolarien bertsogintzatik oso urbil zebilela erakutsi zuan. Olerkietan, berriz, poesiaren goi mailletara igotzen ere bazekiala.

*Auspoa* liburutegi onek aren bertso-sorta bat eskeiñi nai dio gaurko ontan irakurleari. Ez bilduma osoa noski, ortarako askoz ere liburu aundiagoa beariko litzake eta. Baiña bai aren bertsogintza zernolakoa zan erakusteko ainbat izango dana.



Donostiako Euskararen  
Udal Patronatuaren  
laguntzarekin argitaratua



Euskaraz Bizi

ISBN 84-89080-47 x



9 788489 080478